## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO DEPARTAMENTUA.

*Kirol arloko diru laguntzen 2010eko deialdia eta diru laguntza horiek emateko oinarri arautzaile orokorrak eta espezifikoak.ª*

Diputatuen Kontseiluak, 2010eko otsailaren 2an egindako batzarraldian, besteak beste, ondoko erabakia hartu du:

«1998ko ekainaren 11ko 14/98 Legeak, Euskadiko Kirolarenak, kirola herri onurako gizarte jarduera dela xedatzen du 2. artikuluan, pertsonaren heziketa eta garapena osatzen, bizi kalitatea hobetzen eta norbanakoaren nahiz gizataldearen ongizatea lortzen laguntzen duelako, hain zuzen. Legeak, halaber, bakoitzak dituen eskumenen barruan kirol politika bultza dezaten agintzen die herri administrazioei, besteak beste kirol sisteman itsatsita dauden sektoreak eta jarduerak bultzatzearren.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Planean ere zehaztu dira autonomia erkidego honetan jarduera fisikoa eta kirolak sustatzera bideratuko diren ekintzak eta estrategiak. Plan hori garatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Kiroletako 2008-2011ko Jarduketa Plana onartu zuen, eta bertan bildu ditu urte horietarako kirol politikaren lerro nagusiak, dagoeneko finkatuta dauden jarduketa lerroen osagarri direnak.

Orain arte 2007ko otsailaren 27ko 13/2007 Foru Dekretuak, 2008ko urtarrilaren 22ko 3/08 Foru Dekretuaren bidez aldatua izan zenak, arautu du kirol gaietako diru laguntzak ematea.

Erabaki honen bidez aipatu diru laguntzak emateko oinarri erregulatzaile berriak onartzen dira, 2007ko otsailaren 27ko 13/2007 Foru Dekretuak onartutakoen ordez, baita diru laguntza horien 2010eko deialdia ere Horrela, oinarrietan hartzaile eta xede desberdineko hainbat laguntza-lerro agertzen dira. Halatan, kluben finantza sostengua ziurtatzeko nahiz federazioak eta ikastetxeak kirol materialaz hornitzeko dira laguntzetako batzuk, eta kirolarentzako I+G+B egitasmoak sustatzeko nahiz emakumezkoen kirol praktika bultzatzeko beste batzuk.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

*Lehenengo.*

Onartzea kirol arloko diru laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, erabaki honen bukaeran biltzen direnak, baita diru laguntza modalitate bakoitzari dagozkion oinarri arautzaile espezifikoak ere, ondoren aipatzen diren helburu edo xedearen arabera, eta 1 eta 11 bitarteko eranskinetan jasotzen direnak.

— Gipuzkoako kluben kirol jarduera eta modernizazioa. 1. eranskina.

— Jarduera bereziak antolatzea. 2. eranskina.

— Arautu gabeko prestakuntza programak eta kirol titulazio ofizialak lortzeko programak. 3. eranskina.

— Aparteko lehiaketa ofizialetarako joan-etorriak. 4. eranskina.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE DEPORTES Y ACCION EXTERIOR

*Convocatoria correspondiente a 2010 de las subvenciones en materia de deporte y bases reguladoras generales y específicas de otorgamiento de las mismas.*

El Consejo de Diputados, en sesión celebrada el 2 de febrero de 2010, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

«La Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, en su artículo 2, concibe el deporte como una actividad social de interés público que contribuye a la formación y desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social. Al mismo tiempo, ese mismo precepto encomienda a las Administraciones Públicas, en el ámbito de sus competencias respectivas, el desarrollo de una política deportiva que, entre otras cuestiones, contemple el fomento de los diversos sectores y actividades que integran el sistema deportivo.

Asimismo, el Plan Vasco del Deporte fija las acciones y estrategias que han de realizarse para fomentar la actividad física y el deporte en la Comunidad Autónoma del País Vasco. En desarrollo de este Plan y para la actual legislatura, el Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa adoptó el Plan de Actuación 2008-2011 en materia de deporte, en el que se establecen las líneas maestras de la política deportiva para dicho periodo, que complementan las líneas de actuación ya consolidadas.

Hasta la fecha, el régimen de concesión de ayudas económicas en materia de deportes se recogía en el Decreto Foral 13/2007, de 27 de febrero, modificado por Decreto Foral 3/2008, de 22 de enero.

Mediante el presente acuerdo se aprueban unas nuevas bases reguladoras que vienen a sustituir a las aprobadas por Decreto Foral 13/2007, de 27 de febrero, así como la convocatoria correspondiente al ejercicio 2010. Dichas bases contemplan líneas de subvención distintas, con diferentes destinatarios y objetivos, que van desde la colaboración financiera en el sostenimiento de los clubes, hasta la dotación de material deportivo a federaciones y centros escolares; o desde el impulso de acciones de I+D+i aplicables al deporte, hasta la promoción de la práctica deportiva femenina.

En su virtud, el Consejo de Diputados, a propuesta del diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior, y previa deliberación,

ACUERDA

*Primero.*

Aprobar las bases reguladoras generales del otorgamiento de subvenciones en materia de deporte, que se insertan al final del presente acuerdo. Asimismo, se aprueban las bases reguladoras específicas correspondientes a cada una de las modalidades de subvención, según el objeto o destino que seguidamente se indica, que se acompañan como anexos 1 a 11:

— Actividad deportiva y modernización de los clubes guipuzcoanos. Anexo 1.

— Organización de actividades extraordinarias. Anexo 2.

— Programas de formación no reglada y para la obtención de titulaciones deportivas oficiales. Anexo 3.

— Desplazamientos a competiciones oficiales de carácter extraordinario. Anexo 4.

— Kirol materiala eta informatikako materiala erostea. 5. eranskina.

— Igerian ikasteko jarduerak ikasleentzat bultzatzea. 6. eranskina.

— Gazteen artean kirola sustatzeko plana (GKP) ezarri eta garatzea. 7. eranskina.

— Desgaituentzako kirol jarduerak. 8. eranskina.

— Hiri barneko ibilbideak, surfa egiteko lekuak eta kirol instalazioen sarbideak seinalatzea, eta kirol instalazioak hobetu eta berritzeko proiektuak. 9. eranskina.

— Gorputz jarduerako eta kirol gaietako ikerketa proiektuak. 10. eranskina.

— Kirolean berdintasunaren alde egiten duten proiektuak eta programak. 11. eranskina.

*Bigarren.*

Onartzea aipatutako diru laguntzak emateko 2010eko deialdia.

1. Finantzazioa.

1.1. 2010eko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako guztira milioi bat ehun eta hirurogeita bederatzi mila (1.169.000,00) euroko gastua egiteko baimena ematen da, honako aurrekontu ezarpenaren arabera:

— Adquisición de material deportivo e informático. Anexo 5.

— Actividades de promoción del aprendizaje de la natación dirigada a escolares. Anexo 6.

— Implantación y desarrollo del Plan del Fomento del Deporte Juvenil (PDJ). Anexo 7.

— Actividades deportivas dirigidas a personas con discapacidad. Anexo 8.

— Señalización de recorridos urbanos, zonas de práctica de surf y de accesos a instalaciones deportivas, y proyectos de mejora y reforma de instalaciones deportivas. Anexo 9.

— Proyectos de investigación en materia de actividad física y deportiva. Anexo 10.

— Proyectos y programas que fomenten la igualdad en el deporte. Anexo 11.

*Segundo.*

Aprobar la convocatoria correspondiente a 2010 de las citadas subvenciones.

1. Financiación.

1.1. Para las subvenciones correspondientes al ejercicio presupuestario 2010, se autoriza un gasto por importe total de un millón ciento sesenta y nueve mil (1.169.000) euros, con cargo a la siguiente imputación presupuestaria:

| *Programa* | *Aurrekontu saila*<br>*Partida presupuestaria* | *Zenbatekoak*<br>*Importes* |
|---|---|---|
| Gipuzkoako kluben kirol jarduera eta modernizazioa (1. eranskina)<br>Actividad deportiva y modernización de los clubes guipuzcoanos. Anexo 1 | 0210.100.481.00.12 | 100.000,00 |
| Jarduera bereziak antolatzea (2. eranskina)<br>Organización de actividades extraordinarias. Anexo 2 | 0210.100.481.00.10 | 110.000,00 |
| Arautu gabeko prestakuntza programak eta kirol titulazio ofizialak lortzeko programak (3. eranskina)<br>Programas de formación no reglada y para la obtención de titulaciones deportivas oficiales. Anexo 3 | 0210.100.481.00.13 | 10.000,00 |
| Aparteko lehiaketa ofizialetarako joan-etorriak (4. eranskina)<br>Desplazamientos a competiciones oficiales de carácter extraordinario. Anexo 4 | 0210.100.481.00.02<br>0210.100.481.00.15 | 169.000,00<br>50.000,00 |
| Kirol materiala eta informatikako materiala erostea (5. eranskina)<br>Adquisición de material deportivo e informático. Anexo 5 | 0210.100.481.00.06<br>0210.100.481.00.09<br>0210.100.481.00.16<br>0210.100.781.00.01 | 60.000,00<br>28.000,00<br>100.000,00<br>40.000,00 |
| Igerian ikasteko jarduerak ikasleentzat sustatzea (6. eranskina)<br>Actividades de promoción del aprendizaje de la natación dirigida a escolares. Anexo 6 | 0210.100.481.00.03 | 65.000,00 |
| Gazteen artean kirola sustatzeko plana (GKP) ezarri eta garatzea (7. eranskina)<br>Implantación y desarrollo del Plan del Fomento del Deporte Juvenil (PDJ). Anexo 7 | 0210.100.481.00.21 | 160.000,00 |
| Desgaituentzako kirol jarduerak (8. eranskina)<br>Actividades deportivas dirigidas a personas con minusvalías. Anexo 8 | 0210.100.481.00.05 | 40.000,00 |
| Hiri barneko ibilbideak, surfa egiteko lekuak eta kirol instalazioen sarbideak seinalatzea, eta kirol instalazioak hobetu eta berritzeko proiektuak (9. eranskina)<br>Señalización de recorridos urbanos, zonas de práctica de surf y de accesos a instalaciones deportivas y proyectos de mejora y reforma de instalaciones deportivas. Anexo 9 | 0210.100.761.01.01 | 90.000,00 |
| Gorputz jarduerako eta kirol gaietako ikerketa proiektuak (10. eranskina)<br>Proyectos de investigación en materia de actividad física y deportiva. Anexo 10 | 0210.100.770.00.01<br>0210.100.781.00.02 | 25.000,00<br>102.000,00 |
| Kirolean berdintasunaren alde egiten duten proiektuak eta programak (11. eranskina)<br>Proyectos y programas que fomenten la igualdad en el deporte. Anexo 11 | 0210.100.481.00.25 | 20.000,00 |

1.2. Aurreko paragrafoan baimendutako gastuen kopurua handitu edo txikitu egin dezake aldaketaren zenbatekoaren arabera horretarako eskumena emana duen organoak, diru laguntzak emateko ebazpena onartu aurretik eta deialdi berririk egin behar izan gabe.

2. 2010eko eskaerak aurkezteko epea.

2010eko otsailaren 26a izango da azken eguna hirugarren oinarri orokorrean eta oinarri espezifikoen eransnkinetan aipatzen diren agiriak eta formularioak aurkezteko, honako salbuespenekin:

— 3. eranskina: Prestakuntza jarduera amaitu eta gero, eta, nolanahi ere, 2010eko urriaren 31 baino lehen.

— 4. eranskina: 2010eko irailaren 1etik 30a bitartean, aparteko lehiaketetako joan-etorrietarako eta mendiko espedizioetarako.

— 5. eranskina: 2010eko urriaren 31 baino lehen, eskola kirolean erabiltzeko den federazioen kirol materialerako.

— 7. eranskina: 2010eko urriaren 31, Gazteen Kirol Planean sartu berri diren kirol modalitateetako eskarietarako.

3. 2010eko ekitaldian, kirol modalitate hauetako federazioek eta klubek bakarrik izango dute aukera 5. eranskineko 1.a) oinarrian aurreikusita dauden kirol materiala erosteko laguntzak jasotzeko: Errugbia, padela, automobilismoa, tenisa, saskibaloia, badmintona, bela, hockeya, borroka, sanboa eta kirol egokitua.

*Hirugarren.*

Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea eranskinetan agertzen diren diru zenbatekoak eta portzentajeak urtean behin foru agindu bidez aldatzeko.

*Laugarren.*

Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaileek 2007ko otsailaren 27ko 13/07 Foru Dekretuak, 2008ko urtarrilaren 22ko 3/08 Foru Dekretuaren bidez aldatua izan zenak, onartutakoak ordezten dituzte eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera izango dute eragina.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke».

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2010eko otsailaren 3a.—Ramón Martiarena Bergaretxe, Idazkari Teknikoa.

(310) (1316)

1.2. El importe de los gastos autorizados en el apartado anterior podrá ser incrementado o disminuido por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, en cualquier momento anterior a la resolución de concesión y sin necesidad de una nueva convocatoria.

2. Plazo de presentación de solicitudes en el año 2010.

Se establece el día 26 de febrero de 2010 como término del plazo de presentación de los formularios y documentos a los que se refieren la base general tercera y los diferentes anexos de bases específicas, con las siguientes excepciones:

— Anexo 3: Una vez finalizada la actividad formativa y, en todo caso, antes del 31 de octubre de 2010.

— Anexo 4: Entre el 1 y el 30 de setiembre de 2010, para los desplazamientos en competiciones de carácter extraordinario y las expediciones de montaña.

— Anexo 5: Antes del 31 de octubre de 2010, para el material deportivo para federaciones con destino al deporte escolar.

— Anexo 7: El 31 de octubre de 2010 para solicitudes correspondientes a modalidades de nueva incorporación al PDJ.

3. En el ejercicio 2010, sólo podrán optar a las ayudas para material deportivo reguladas en la base 1.a) del anexo 5 las federaciones y clubes de las siguientes modalidades deportivas: Rugby, pádel, automovilismo, tenis, baloncesto, badminton, vela, hockey, lucha y sambo y deporte adaptado.

*Tercero.*

Facultar al diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior para actualizar anualmente mediante orden foral la cuantía de los importes y de los porcentajes recogidos en los anexos.

*Cuarto.*

Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo sustituyen a las aprobadas por el Decreto Foral 13/2007, de 27 de febrero, modificado por Decreto Foral 3/2008, de 22 de enero, y producirán efectos desde el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante el Consejo de Diputados, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente».

Lo que se publica para general conocimiento.

Donostia-San Sebastián, a 3 de febrero de 2010.—El Secretario Técnico Ramón Martiarena Bergaretxe.

(310) (1316)

OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

*1. Xedea.*

Oinarri hauen helburua da kirol arloko diru laguntzak arautzea, ondorengo modalitateekin bat etorriz. Horien oinarri erregulatzaile bereziak eranskinetan jaso dira:

— Gipuzkoako kluben kirol jarduera eta modernizazioa. 1. eranskina.

— Jarduera bereziak antolatzea. 2. eranskina.

— Arautu gabeko prestakuntza programak eta kirol titulazio ofizialak lortzeko programak. 3. eranskina.

— Aparteko lehiaketa ofizialetarako joan-etorriak. 4. eranskina.

— Kirol materiala eta material informatikoa erostea. 5. eranskina.

— Igerian ikasteko jarduerak ikasleentzat. 6. eranskina.

— Gazteen artean kirola sustatzeko plana (GKP) ezarri eta garatzea. 7. eranskina.

— Desgaituentzako kirol jarduerak. 8. eranskina.

— Hiri barneko ibilbideak, surfa egiteko lekuak eta kirol instalazioen sarbideak seinalatzea, eta kirol instalazioak hobetu eta berritzeko proiektuak. 9. eranskina.

— Gorputz jarduerako eta kirol gaietako ikerketa proiektuak. 10. eranskina.

— Kirolean berdintasunaren alde egiten duten proiektuak eta programak. 11. eranskina.

*2. Diru laguntzen entitate eskatzaileak.*

1. Oinarri hauetan araututako diru laguntzak eskatzeko aukera izango dute diru laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoa, edota diru laguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoena, oinarri berezien eranskin bakoitzak ezarritakoari jarraituz..

Entitate eskatzaileek oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetatik dagokionean agertzen diren baldintzak bete beharko dituzte, eta ez die eragin behar 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluaren 2, 3 eta 4. atalean ezarritako debekuren batek.

2. Diru laguntzen onuradun izateko 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauaren 12. artikuluaren 2, 3 eta 4. ataletan ezarritako debekuek eragiten ez dietela egiaztatzeko diru laguntzaren eskaerarekin batera deklarazio arduratsua aurkeztu ahal izango da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko Kiroletako Zuzendaritza Nagusiaren ereduaren arabera.

Edonola ere, zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatze aldera, entitate interesdunak dagokien organoek egindako ziurtagiriak aurkeztu behar ditu; edo horren ordez, baimena eman ahal izango du espresuki informazio hori aipatu organoek zuzenean Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuari laga diezaioten.

BASES REGULADORAS GENERALES

*1.ª Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación del otorgamiento de subvenciones en materia de deportes, de conformidad con las modalidades que seguidamente se indican, y cuyas bases reguladoras específicas de concesión se acompañan como anexos:

— Actividad deportiva y modernización de los clubes guipuzcoanos. Anexo 1.

— Organización de actividades extraordinarias. Anexo 2.

— Programas de formación no reglada y para la obtención de titulaciones deportivas oficiales. Anexo 3.

— Desplazamientos a competiciones oficiales de carácter extraordinario. Anexo 4.

— Adquisición de material deportivo e informático. Anexo 5.

— Actividades de promoción del aprendizaje de la natación dirigida a escolares. Anexo 6.

— Implantación y desarrollo del Plan del Fomento del Deporte Juvenil (PDJ). Anexo 7.

— Actividades deportivas dirigidas a personas con discapacidad. Anexo 8.

— Señalización de recorridos urbanos, zonas de práctica de surf y de accesos a instalaciones deportivas, y proyectos de mejora y reforma de instalaciones deportivas. Anexo 9.

— Proyectos de investigación en materia de actividad física y deportiva. Anexo 10.

— Proyectos y programas que fomenten la igualdad en el deporte. Anexo 11.

*2.ª Entidades solicitantes de estas subvenciones.*

1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las personas físicas o jurídicas que hayan de realizar la actividad que fundamenta su otorgamiento o que se encuentren en la situación que legitima su concesión, según se establece en cada uno de los anexos de bases específicas.

Las entidades solicitantes deberán cumplir los requisitos que se contemplan en el anexo correspondiente de entre los que acompañan a estas bases generales, y no incurrir en ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. La acreditación de no incurrir en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones que se establecen en el artículo 12, apartados 2, 3 y 4, de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, podrá realizarse mediante la presentación de una declaración responsable que se acompañe a la solicitud de subvención, según modelo que facilite la Dirección General de Deportes del Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En todo caso, para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, la entidad interesada deberá aportar los correspondientes certificados emitidos por los órganos competentes; o en su lugar, podrá autorizar expresamente la cesión de dicha información por parte de los citados órganos directamente al Departamento de Deportes y Acción Exterior.

*3. Diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

1. Eskaerak, Kirol Zuzendaritza Nagusiak emandako ereduaren arabera, aurreko oinarrian eta oinarri hauekin batera doazen eranskinetatik dagokionean ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztuko dira, ahal dela eta dituzten ezaugarriek bide hori ixten ez badie www.gipuzkoa.net atarian dauden euskarazko ala gaztelerazko sarrera helbideen barrena. Eskaerak eta dokumentazio osagarria internet bidez aurkezterakoan foru dekretu hauek bete behar dira: 2004ko maiatzaren 11ko 41/04 Foru Dekretua, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko internet bidezko harremanak arautzen dituena, eta 2006ko irailaren 12ko 40/06 Foru Dekretua, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duena.

Halaber, badago aukera eskaerak eta dokumentazioa Kirol Zuzendaritza Nagusiari zuzentzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren Erregistroan (Gipuzkoa plaza zk.g. 2. solairua, Donostia) edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Zentralean (aurreko helbidearen beheko solairuan) aurkezteko; era berean, bidezkoa da 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenarenak, 38.4 artikuluan aurreikusitako bitartekoen bidez aurkeztea.

2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak www.gipuzkoa.net atarian eskuragarri egongo dira eta Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren bulegoan ere jaso ahal izango dira.

3. Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

4. Erakunde eskatzaileek ez dituzte jada Gipuzkoako Foru Aldundiak badituen dokumentuak aurkeztu beharko, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenarenak, 35. f) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki eta eskaera orrian zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, jaulki ziren, adierazi beharko da, betiere dagokion prozedura amaitu ondoren ez badira bost urte iragan.

*4. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.*

1. Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenarenak, 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko eta adieraziko zaio hori egingo ez balu, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela, aipatu legearen 42.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuak eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

*5. Emateko prozedura.*

1. Diru laguntzak elkarrekiko norgehiagokako prozeduraren nahiz lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, oinarri berezien eranskinetan adierazten denaren arabera.

2. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

*3.ª Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.*

1. Las solicitudes, según modelo que facilite la Dirección General de Deportes, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas según la base anterior y lo señalado en el anexo correspondiente de entre los que acompañan a estas bases, se presentarán, siempre que su naturaleza lo permita, vía internet a través de las direcciones de acceso existentes, en euskera y castellano, en el portal www.gipuzkoa.net. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 41/2004, de 11 de mayo, por el que se regulan las relaciones entre los ciudadanos y la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de Internet, y en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

También podrán dirigirse a la Dirección General de Deportes, y presentarse en el Registro del Departamento de Deportes y Acción Exterior (plaza Gipuzkoa s/n, 2.ª planta, San Sebastián), en el Registro General de la Diputación Foral de Gipuzkoa (en planta baja de la dirección anterior), o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en el portal www.gipuzkoa.net y se podrán recoger también en las dependencias del Departamento de Deportes y Acción Exterior.

3. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

4. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 35. f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, debiendo indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan.

*4.ª Subsanación y documentación complementaria.*

1. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de ese mismo texto legal.

2. El Departamento de Deportes y Acción Exterior de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

*5.ª Procedimiento de concesión.*

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones será bien el de concurrencia competitiva, bien el de concurrencia no competitiva, según se señala en los correspondientes anexos de bases específicas.

2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por el órgano competente publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*6. Balorazio irizpideak.*

Diru laguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri bereziek diru laguntza mota bakoitzarentzat ezarritakoak izango dira.

Hala ere, 1 eta 10 bitarteko eranskinetako oinarri berezien arabera diruz lagundutako proiektu, programa eta jarduerei oinarri berezi horietan jasotako irizpideak aplikatzeagatik dagokien zenbatekoa %20an gehitu ahal izango zaie gehienez ere, baldin eta kirolaren alorrean generoaren berdintasuna bereziki bultzatzen badute.

Diru laguntza horiek gehitzeko gastua 11. eranskinean jasotako subentzio lerrorako baimendutako partidaren kargura xedatuko da.

*7. Finantzazioa.*

1. Hala badagokio, eman daitezkeen diru laguntzak deialdiaren urteko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du diru laguntzak aurrekontuko zein kredituren kargurakoak izango diren.

2. Oinarri hauen xede diren diru laguntzak xede bereko beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoekin, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeenak izanda ere, betiere ez bada dagokion jarduketaren kostua gainditzen, horren inguruan beste diru laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketenaren kalterik gabe.

3. Oinarri hauetan erregulatutako diru laguntzen zenbatekoak, bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatuen diru laguntza edota bestelako laguntzekin batera, ez du inola ere onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gaindituko.

4. Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin bateria laguntzak jasoz gero, diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldatua izan daiteke.

*8. Diru laguntzen zenbatekoa.*

Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri berezietan definitutako diru laguntzen balorazio eta kuantifikazio irizpideak kontuan izanda.

*9. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

1. Diru laguntza horiek emateko prozedura bideratzea Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko Idazkaritza Teknikoari eta Kirol Zuzendaritza Nagusiari egokituko zaie.

2. Eskaerak Kirol Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aztertu dituzte eta haiek, behar izanez gero kanpoko adituen laguntzarekin, balorazio txostena egingo dute. Txosten hori subentzio mota bakoitzeko eratuko den Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

*6.ª Criterios de valoración.*

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los que se señalan en las bases específicas de los anexos que acompañan a estas bases generales para cada modalidad de subvención.

No obstante, aquellas actividades, programas o proyectos que sean subvencionados de conformidad con las bases específicas de los anexos 1 al 10 y que fomenten de manera especial la igualdad de género en el ámbito del deporte, podrán ver incrementado hasta en un 20% el importe de la ayuda que les corresponda por aplicación de los criterios recogidos en dichas bases específicas.

El gasto que se destine a estos incrementos de subvención se dispondrá con cargo al autorizado para la línea subvencionable recogida en el anexo 11.

*7.ª Financiación.*

1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no se rebase el costo de la actuación subvencionada, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras Administraciones Públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.

4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

*8.ª Cuantía de las subvenciones.*

El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración y cuantificación de las subvenciones definidos en las bases específicas de los anexos que acompañan a estas bases generales.

*9.ª Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión corresponderá a la Secretaría Técnica del Departamento de Deportes y Acción Exterior y a la Dirección General de Deportes.

2. Las solicitudes serán analizadas por los técnicos y técnicas de la Dirección General de Deportes, quienes, con la eventual asistencia de personas expertas externas, elaborarán un informe de valoración de las mismas, informe que será sometido a la Comisión Evaluadora que, por cada modalidad de subvención, se constituya, la cual, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y que será elevada al órgano competente para su aprobación.

Subentzio mota bakoitzaren Batzorde Ebaluatzaileko kide izango dira Kiroletako zuzendari nagusia (lehendakari izango da); Kiroletako zerbitzu burua; zerbitzu horretako teknikari bat; Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuko teknikari bat; eta Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko idazkari teknikoa (batzordeko idazkari gisa).

*10. Diru laguntzak emateko ebazpena.*

1. Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko foru diputatua izango da oinarri hauetan bildutako diru laguntzak ematea ebazteko eskumena duena.

2. 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenarenak, 59.6.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordezkatuko du eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

3. Behar den ebazpena eman eta argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da; epe hori dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatuko da. Epe hori amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, eskatzaileek eskaera ezetsitzat joko dute, administrazioaren isiltasunagatik.

*11. Erakunde onuradunen betebehar eta konpromisoak.*

Erakunde onuradunek diru laguntzak onartzeak eragiten du, izaera orokorrarekin, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoan, eta 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuan, foru arau hori garatzeko erregelamendua onartzen duenean, ezarritako betebeharrak betetzea. Horrez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

— Kirol Zuzendaritza Nagusiak deitzen dituen bileretan parte hartzea, horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin beharrezko bide eta bitartekoak ezarriz.

— Gipuzkoan eskola kirolaren esparruan indarrean diren arauak gordetzea, baita Gipuzkoako Foru Aldundiak eta kirol modalitate bakoitzeko laguntza teknikoaren ardura duten erakundeen artean eskola kiroleko programak garatzeko egindako hitzarmenak ere.

— Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako jarduera eta programen inguruko adierazpen guztietan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera esparruan 2008-2012 aldirako hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen 2009ko urtarrilaren 27ko 4/09 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera.

— Diruz lagundutako jarduera edo jarduketaren izaera publikoaren berri ematea. Besteak beste, laguntza eman duen entitatearen irudi instituzionala sar daiteke, edo finantzaketa publikoari buruzko legendak jar daitezke karteletan, plaka oroigarrietan, material inprimatuetan, bitarteko elektroniko edo ikusentzunezkoetan, edo diru laguntza hedabideetan aipatu daiteke.

— Oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri berezietan diru laguntza mota bakoitzarentzat jasotako gainerako egինkizunak betetzea.

Formarán parte de la Comisión Evaluadora de cada modalidad de subvención el director general de Deportes, que presidirá la misma; el jefe de servicio de Deportes; un técnico o una técnica de dicho servicio; un técnico o una técnica del Servicio de Intervención y Auditoría del Departamento de Hacienda y Finanzas; y el secretario técnico del Departamento de Deportes y Acción Exterior, este último en calidad de secretario de la comisión.

*10.ª Resolución de concesión.*

1. El diputado foral del Departamento de Deportes y Acción Exterior será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases.

2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 59.6.b) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

3. El plazo máximo para dictar y publicar o notificar la resolución que corresponda será de seis meses. El plazo se computará desde la publicación de la correspondiente convocatoria. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado o publicado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

*11.ª Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.*

La aceptación de la subvención por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril. Estarán obligadas, además, a lo siguiente:

— Participar en las reuniones que convoque la Dirección General de Deportes, para lo que se establecerán los cauces y medios necesarios que faciliten la máxima participación.

— Respetar la normativa sobre deporte escolar vigente en Gipuzkoa, y los acuerdos alcanzados entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y las entidades encargadas de la asistencia técnica de cada modalidad en orden al desarrollo de los programas de deporte escolar.

— Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones referidas a las actividades y programas subvencionados, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral 4/2009, de 27 de enero, que regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el período 2008-2012.

— Dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actividades o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

— Cumplir las restantes obligaciones que, para cada modalidad de subvención, se contienen en las bases específicas recogidas en los anexos que acompañan a las presentes bases generales.

*12. Diru laguntzen ordainketa.*

Eranskinetako oinarri berezietan diru laguntza mota bakoitzarentzat zehazten den moduan ordainduko dira diru laguntzak.

Irabazi asmorik gabeko erakundeen eta enpresa pribatuen kasuan, zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete izana erakusten duten agiri eguneratuak aurkeztu beharko dituzte, edo agiri horien ordez, baimena eman ahal izango dute espresuki informazio hori zuzenean Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuari lagatzeko.

*13. Diru laguntzen justifikazioa.*

Oinarri hauetako diru laguntzak, eranskinetan laguntza lerro bakoitzerako bildutako berezitasunekin, egindako jarduerak zuritzen dituen kontu erraztu bat aurkeztuta zurituko dira. Honako hauek bilduko ditu kontu zurigarri horrek:

a) Laguntza ematean jarritako baldintzak bete direla azaltzen duen memoria, zer jarduera egin ziren eta zer emaitza lortu ziren zehaztuta.

b) Diruz lagundutako jardueraren gastuak sailkatzen dituen zerrenda, hornitzailea eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data identifikatuta. Diru laguntzaren eskaeran aurkeztutako aurrekontuarekiko izandako desbiderapenak adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzak, zenbatekoa eta jatorria barne, xehetasunez jasotzen dituen zerrenda.

d) Hala badagokio, ordainagiria, aplikatu gabeko soberakinen kasuan.

Kirol Zuzendaritza Nagusiak egiaztatuko ditu, diru laguntzak emateko ebazpenetan erabakitako bitartekoan bidez, egoki deritzen eta diru laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzten duten frogagiriak. Horretarako, onuradunari eskatu diezaioke berak hautatutako gastu frogagiriak bidaltzeko.

*14. Diru laguntza emateko ebazpenaren aldaketa.*

Erakunde onuradunek diru laguntza ematen duen organoari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera zuritzeko epea amaitu aurretik, ebazpena alda dezan finkatutako epeak luzatzeko, emandako diru laguntza murrizteko edo jardueran bildutako ekintzak aldatzeko; ezusteko kausen ondorio direnean edo jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere diru laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Organo eskumendunak ebazpena ofizioz aldatu ahal izango du, aurrez erakunde interesatuarekin bilduta eta funtsak aplikatu aurretik, diru laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzeak helburu zen interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu eta onuradunari ez bazaizkio kalte ekonomikoak eragiten.

*15. Diru laguntzen itzulketa.*

1. Erakunde onuradunak ez baditu oinarri hauetan, berariazkoetan eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betetzen, diru laguntza jaso-

*12.ª Pago de las subvenciones.*

El pago de las subvenciones se producirá, para cada modalidad de subvención, del modo señalado en las bases específicas recogidas en los anexos.

Las entidades sin ánimo de lucro y las empresas privadas deberán presentar la documentación actualizada del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social o, en su lugar, podrán autorizar expresamente la cesión de dicha información al Departamento de Deportes y Acción Exterior.

*13.ª Justificación de las subvenciones.*

Las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán, con las especialidades que se incluyen en los anexos para cada línea de ayudas, mediante la presentación de una cuenta justificativa simplificada de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. Se indicarán las desviaciones acaecidas en relación con el presupuesto presentado con la solicitud de subvención.

c) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

d) En su caso, la carta de pago en el supuesto de remanentes no aplicados.

La Dirección General de Deportes comprobará, a través de los medios que se acuerden en las resoluciones de concesión de las subvenciones, los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir a la entidad beneficiaria la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.

*14.ª Modificación de la resolución de concesión.*

Las entidades beneficiarias podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la justificación de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

El órgano concedente también podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la entidad interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la beneficiaria.

*15.ª Reintegro de las subvenciones.*

1. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases generales, en las específicas y demás nor-

tzeko eskubidea guztiz edo zati batean galduko du eta diru laguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 35. artikuluan ezarritakoari eta 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuak onartutako garapen araudiko 63. artikuluari eta ondorengoei jarraikiz, eta hortik ondorioztaturiko erantzukizunei ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira eta egindako jardueren eta proiektu guztiaren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

*16. Araudi aplikagarria.*

Oinarri hauen xede diren diru laguntzei, bertan eta berariazko oinarri arautzaileetan (eranskinetan jasotzen direnetan) ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkie: 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta hori garatzeko emandako araudia, 2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa.

1 ERANSKINA

GIPUZKOAKO KLUBEN KIROL JARDUERA ETA MODERNIZAZIOA

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea Gipuzkoako kirol klubentzako diru laguntzak ematea, elkarrekiko lehian, ohiko jarduerak gara ditzaten eta beren egiturak moderniza ditzaten.

*2. Entitate onuradunak.*

Gipuzkoako kirol klubek izango dute diru laguntza hauek jasotzeko aukera, baldintza hauek betetzen badituzte:

— Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundeen Erroldan izena emanda egotea, diru laguntza hauen deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31rako.

— Behar diren datuak Gipuzkoako Foru Aldundiko kluben erroldara bidaliak izatea.

— Kirol modalitateak berrantolatzeko Kirol Zuzendaritza Nagusiak onarturiko prozesuen barruan adostuta dagoena betetzea, halakorik balego.

— Kategoria absolutuko ekipo bat gutxienez edukitzea Autonomia Erkidegoren mailako edo goragoko liga edo txapelketa batean. Banakako modalitateetan, berriz, gutxienez bost kirolarik hartu behar dute parte Autonomia Erkidegoaren mailako edo goragoko txapelketetan.

— Klubaren sekzio batean gutxienez, dagokion modalitatean, egiaztatzea lurraldeko errendimendu kategoria desberdinetan parte hartzen duten ekipo edo kirolariak dituela, hasi kadeteetan eta amaitu kategoria abosolutuan.

Azken bi baldintza horiek ez dago ezinbestez zertan kontuan hartu, baldin eta ez betetzearen arrazoia egoera puntual eta klubarentzat ezohizko baten ondorioz gertatu bada, edota klubaren potentzialtasuna -azken hiru urteetan klubak izan duen bilakaera eta aurrerabidea baloratuta- baldintzok kontuan ez hartzeko adinakoa bada.

mativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y artículos 63 y siguientes de su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha norma foral.

2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de las acciones realizadas respecto a la totalidad de las mismas y a los importes percibidos.

*16.ª Normativa aplicable.*

Las subvenciones objeto de las presentes bases se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas y en las bases específicas contenidas en los anexos, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

ANEXO 1

ACTIVIDAD DEPORTIVA Y MODERNIZACION DE LOS CLUBES GUIPUZCOANOS

*1. Objeto.*

3. Eskola kiroleko lehiaketetarako joan-etorriak izango dira ikastetxeek eta klubek ikasturte bakoitzeko eskola kiroleko jardueren programako heziketa-jolas izaerako lehiaketetan edo parte hartzekoetan, nahiz errendimenduan hastekoetan egindako joan-etorriak eta kirolarien teknifikazioko jardueretarako egindakoak.

*2. Entitate onuradunak.*

1. Aparteko joan-etorrietarako laguntzak jasotzeko aukera izango dute aurreko 1. oinarriko 2. puntuko baldintzen arabera antolatutako txapelketetan parte hartzen duten taldeak edo kirolariak dituzten Gipuzkoako kirol klubek, batetik, eta federazioek, bestetik.

2. Laguntza deialdiaren urtean amaitzen den ikasturtean eskola kiroleko programaren barruan parte hartzea sustatzeko lehiaketetan, bakarrik benjamin, alebin, infantil eta kadeteen kategorietan izena eman duten Gipuzkoako ikastetxeek eta kirol klubek jaso ahal izango dituzte eskola kiroleko joan-etorrietarako laguntza hauek.

Kirolariek garraio berezia eskatzen duten materiala eraman behar duten banakako zenbait modalitateen kasuan, hala nola piraguismoan eta txirrindularitzan, probak antolatzen dituzten federazio arduradunek eskatu ahal izango dituzte laguntza horiek.

Halaber, alebin kategoriako bigarren urteko ikasleentzat diren errendimenduan hasteko lehiaketa jardueretan parte hartzen duten Gipuzkoako kirol klubek ere jaso ahal izango dituzte laguntza hauek.

*3. Eskaerak aurkeztea.*

1. Aparteko joan-etorrien kasuan, eskaera orriak joan-etorria burutu ondoren eta, nolanahi ere, laguntzen deialdiaren urteko irailaren 30a baino lehen, aurkeztu behar dira, dokumentazio honekin batera:

— 4 inprimakia.

— Lehiaketako akta ofizialak.

Denboraldian zehar aparteko joan-etorri bat baino gehiago egin duten entitateen kasuan, eskaera bakarra aurkeztu behar dute, egindako joan-etorri guztiei dagozkien agiriak erantsiz.

2. Eskola kiroleko joan-etorrien kasuan, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuak Gipuzkoako ikastetxeei, klubei eta kirol federazioei eskatzen dietenean aurkeztuko dira eskaerak.

*4. Eskaerak aztertzea eta laguntzen zenbatekoa finkatzea.*

1. Aparteko joan-etorrietarako diru laguntzaren zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Kirol denboraldian aparteko lehiaketa ofizial horietan parte hartzera joandako kirolarien kopurua; kirol denboraldi hori aurreko ekitaldiko urriaren 1etik hasi eta deialdiaren ekitaldiko irailaren 30era bitartekoa izango da.

3. Tendrán la consideración de desplazamientos a competiciones de deporte escolar, aquellos realizados por los centros escolares y los clubes en las actividades de competición de carácter formativo-recreativo o de participación y las de inciación al rendimiento, así como las actividades de tecnificación de deportistas incluidas en el programa de actividades de deporte escolar de cada curso.

*2. Entidades beneficiarias.*

1. Podrán optar a las ayudas por desplazamientos extraordinarios las federaciones y los clubes deportivos guipuzcoanos con equipos o deportistas que participen en las competiciones que cumplan los requisitos indicados en el punto 2 de la base 1.ª anterior.

2. Podrán optar a las ayudas por desplazamientos de deporte escolar los centros escolares y clubes deportivos de Gipuzkoa que estén inscritos en las competiciones de participación del programa de deporte escolar del curso que finalice en el año de la convocatoria de las ayudas, dirigidas a escolares de la categorías benjamín, alevín, infantil y cadete exclusivamente.

En el caso de determinadas modalidades individuales en las que los participantes deben portar material que requiera un medio de transporte singular, tales como piragüismo y ciclismo, podrán optar a dichas ayudas las federaciones responsables de la organización de las pruebas.

Asimismo, podrán optar a las ayudas los clubes de Gipuzkoa participantes en las actividades de competición de iniciación al rendimiento dirigidas a escolares de segundo año de la categoría alevín.

*3. Presentación de instancias.*

1. Para el supuesto de desplazamientos extraordinarios, las instancias de solicitud deberán ser presentadas una vez finalizado el desplazamiento y, en cualquier caso, antes del 30 de setiembre de cada año, acompañadas de los siguientes documentos:

— Formulario 4.

— Actas oficiales de la competición.

En el caso de entidades que, a lo largo de la temporada deportiva, hayan realizado más de un desplazamiento extraordinario, deberán remitir una sola solicitud en la que incluirán los documentos referidos a todos los desplazamientos realizados.

2. En el caso de desplazamientos de deporte escolar, las solicitudes se presentarán cuando sean requeridas por el Departamento de Deportes y Acción Exterior a los centros escolares, clubes y federaciones deportivas de Gipuzkoa.

*4. Evaluación y cuantificación de las subvenciones.*

1. Para la cuantificación de la subvención por los desplazamientos extraordinarios, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— El número de deportistas desplazados durante la temporada deportiva a esas competiciones oficiales extraordinarias, considerándose dicha temporada la comprendida desde el 1 de octubre del ejercicio anterior hasta el 30 de setiembre del ejercicio de convocatoria de las ayudas.

Beherago azaltzen den bezala, modalitateen ezaugarrien arabera joan-etorri bakoitzeko kirolari kopuru gehieneko bat ezarri da:

Se computa un número máximo de deportistas por cada desplazamiento en función de las características de la modalidad, según se señala en el siguiente cuadro:

| *Modalitateak*<br>*Modalidades* | *Gehieneko kopurua*<br>*Nº máximo* |
|---|---|
| Badmintona (taldeka) / Badminton (por equipos) | 10 |
| Saskibaloia / Baloncesto | 14 |
| Eskubaloia / Balonmano | 14 |
| Beisbola eta sofbola / Béisbol y Sófbol | 18 |
| Futbola / Fútbol | 18 |
| Areto Futbola / Fútbol Sala | 14 |
| Gimnasia (Taldeak) / Gimnasia (conjuntos) | 5 |
| Belar gaineko hockeya / Hockey Hierba | 18 |
| Izotz hockeya/ Hockey hielo | 20 |
| Lerroko patin gaineko hockeya / Hockey patines en línea | 16 |
| Ohiko patin gaineko hockeya /<br>Hockey patines tradicional | 14 |
| Areto hockeya / Hockey Sala | 14 |
| Padela (taldeka) / Padel (por equipos) | 15 |
| Batel arraunketa / Remo Bateles | 8 |
| Traineru arraunketa / Remo Trainera | 18 |
| Trainerila arraunketa / Remo Trainerilla | 10 |
| Errugbia / Rugby | 22 |
| Sokatira / Soka Tira | 12 |
| Mahai tenisa/Tenis de mesa | 6 |
| Boleibola / Voleibol | 14 |
| Waterpoloa / Waterpolo | 15 |

Taldekako modalitateetan, entrenatzailea eta ordezkaria ere bidaiarien zerrendan sartuko dira. Banakako modalitateetan, berriz, entrenatzailea bidaiarien zerrendan sartu ahal izateko gutxienez klubeko hiru kirolarik parte hartu beharko dute lehiaketan, ezinduentzako kiroletan izan ezik, halakoetan kirolarien beharren arabera finkatuko baitira laguntzaileak.

En las modalidades de equipo se incluye entrenador/a y delegado/a. En las modalidades individuales únicamente se incluye entrenador/a si se desplaza un mínimo de tres deportistas por club, excepto en deportes para personas con minusvalías, donde las personas acompañantes se fijan en función a las necesidades de las y los deportistas.

— Lehiaketa jokatzen den tokia, harako distantzia kilometrotan neurtuta, ondoko koadroaren arabera:

— La ubicación de la sede de la competición en función de la distancia kilométrica señalada en el siguiente cuadro:

| *Kokapena*<br>*Zona* | *Kilometroak*<br>*Kilómetros* | *Maila goreneko lehiaketak: puntuak, joandako kirolari bakoitzeko eta lehiaketa egun bakoitzeko*<br>*Competiciones de máxima categoría: Puntos por deportista desplazado y día de competición* | *Beste kategoria batzuetako lehiaketak: puntuak, joandako kirolari bakoitzeko eta lehiaketa egun bakoitzeko*<br>*Competiciones de otras categorías: Puntos por deportista desplazado y día de competición* |
|---|---|---|---|
| A | < 400 | 20 | 10 |
| B | 400 – 700 | 30 | 15 |
| C | > 700 | 40 | 20 |
| D | Balear eta Kanariar Uharteak<br>Islas Baleares y Canarias | 50 | 25 |

— Diru laguntzaren gehieneko kopurua 1.800,00 euro izango da joan-etorriko, edo txapelketako, entitate berak joan-etorri bat baino gehiago egiten dituenean txapelketa bereko lehiaketa ezberdinetara joateko.

— Ez da diru laguntzarik emango Euskal Autonomi Erkidegoan egindako ezein joan-etorritarako, ez eta infantil, alebin edo benjamin kategorietako kirolarien joan-etorrietarako ere. Kategoria absolutuetan ez da diru laguntzarik emango estatutik kanpoko joan-etorrietarako. Muga hori ez dago kadete, jubenil eta beteranoen kategorietan, ez eta mendiko modalitatean ere. Beteranoen kategorian, bakarrik lagunduko dira lehiaketa maila gorenetarako joan-etorriak direnean.

— Puntu baten balioa ateratzeko, diru laguntzen modalitate honi dagokion aurrekontua zatitu egiten da eskaera onartuen guztizko puntuekin. Puntuaren balio hori eta kasuan kasuko klubak lorturiko puntuak biderkatuz aterako da diru laguntzaren zenbatekoa.

2. Mendiko espedizioen kasuan, ezarritako gehienezko laguntza mugaz gainera (1.800 euro), ondorengo hauek ere kontuan hartuko dira:

— Espedizio eguntzat hartuko dira abiatze eta iriste eguna bitartekoak, gehienez ere 60 egun izango direlarik.

— Gipuzkoako Mendi Federazioak emandako lizentzia ez dutenen joan-etorria ez da kontuan hartuko.

— Mendiko espedizio garrantzitsu guztientzako gehieneko diru laguntza ez da 9.000 euro baino gehiagokoa izango.

3. Eskola kiroleko joan-etorrietarako diru laguntzaren zenbatekoa zehazteko, ondorengo irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Diru laguntza kalkulatzeko, eskaria egin duen ikastetxea edo kluba dagoen herritik lehiaketa egingo den herrira dauden kilometroak (joan-etorria), taldea osatzen duten kide kopuruaz eta 0,05 euroko zenbateko finkoaz biderkatuko dira.

— Joan-etorriak gutxienez zortzi (8) kilometrokoa izan beharko du eskaria egin duen ikastetxea dagoen herritik lehiaketa egingo den herriraino, joan-etorrietako kilometroak batuta.

— Diru laguntza eskatzeko, joan-etorriak ezingo du, salbuespenetan izan ezik, Gipuzkoako lurraldearen eremua gainditu.

— Mendiko modalitateari dagokionez, eskaerak berariaz tratatuko dira, eta 55.000 euroko gehienezko muga jarriko da eskaera multzo osoarentzat. Eskaera kopuruak zenbateko hori gaindituz gero, diru laguntzak eskatzaileen artean hainbanatuko dira.

El máximo de subvención es de 1.800,00 euros por desplazamiento, o por campeonato, en el caso de que la misma entidad realice varios desplazamientos a competiciones correspondientes a un mismo campeonato.

— No se subvencionará ningún desplazamiento efectuado dentro de la Comunidad Autónoma, ni ninguno de los efectuados por deportistas de categoría infantil, alevín o benjamín. En categorías absolutas, no se subvencionarán desplazamientos fuera del ámbito estatal. Esta última limitación no se da en las categorías de cadetes, juveniles y veteranos, ni en la modalidad de montaña. En la categoría de veteranos sólo se subvencionarán los desplazamientos correspondientes a los máximos niveles de competición.

— El presupuesto de esta modalidad de ayudas se divide entre la suma total de puntos de las solicitudes admitidas para hallar el valor unitario del punto. La subvención a cada club consistirá en multiplicar el número de puntos obtenido por el valor del punto.

2. En el caso de las expediciones de montaña, además del límite máximo de subvención señalado (1.800 euros), se tendrán en cuentas las siguientes consideraciones:

— Serán considerados días de expedición los transcurridos entre la salida y la llegada, con un límite máximo de 60 días.

— No se computarán las y los desplazados que no tengan licencia tramitada por la Federación Guipuzcoana de Montaña.

— La subvención para el conjunto de expediciones relevantes de montaña no podrá exceder de 9.000 euros.

3. Para la cuantificación de la ayuda económica a los desplazamientos de deporte escolar se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— El cálculo de la subvención se realizará multiplicando la distancia en kilómetros desde el municipio en que se ubica el centro escolar o el club solicitante hasta el municipio en que se celebre la competición (ida y vuelta), por el número de componentes del equipo y por la cantidad fija de 0,05 euros.

— El desplazamiento realizado deberá ser de un mínimo de ocho (8) kilómetros desde el municipio en que esté ubicado el centro escolar o el club solicitante hasta el municipio en que se celebre la competición, sumados los de ida y vuelta.

— El desplazamiento para el que se solicite la subvención no deberá superar, salvo excepciones, el ámbito territorial de Gipuzkoa.

— En lo relativo a la modalidad de montaña, las solicitudes se tratarán de manera específica, estableciéndose un límite máximo para el conjunto de las solicitudes de 55.000 euros. Si el importe de las mismas superase dicha cantidad máxima, las subvenciones se prorratearán entre los solicitantes.

*5. Diru laguntza ordaintzea.*

1. Emandako diru laguntza dena batera ordainduko da, onartzen denean.

2. Salbuespen bezala, hala eskatuta, onuradunak kontzeptu honetan laguntzak jaso ohi baditu eta deialdiaren barruko kirol denboraldiari dagozkion txapelketetan parte hartuko duela bermatu baldin badezake, aurreko denboraldian jasotako zenbatekoaren %50 ordain daiteke aurrerakin gisa.

5 ERANSKINA

KIROL ETA INFORMATIKAKO MATERIALA EROSTEA

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea diru laguntzak ematea, elkarrekiko lehian, ondoren zehazten den material mota erosteko:

a) Klubek eta federazioek errendimenduko kirola sustatzeko kirol eta informatikako materiala, atal hauetakoren batean sar daitekeena:

1. Material teknologikoa. Teknologia handiko materiala da, gipuzkoar kirolariek teknika hobetzeko egokia eta bere kostu ekonomiko handiarengatik eskuratzeko zaila. Materialaren jabetza eta kudeaketa federazioarenak izango dira, eta material hori federazioaren aktiboen balantzean azalduko da hiru urtetan gutxienez. Gipuzkoar kirolarien teknifikaziorako erabiliko da material hori.

2. Erabilera orokorreko materiala. Kirol jardueren segurtasuna, kontrola, kronometrajea eta markaketa hobetzeko balio duenari deitzen zaio. Materialaren jabetza eta kudeaketa federazioarenak izango dira, eta material hori federazioaren aktiboen balantzean azalduko da hiru urtetan gutxienez.

Atal horren barruan material hauek sartzen dira:

— Kirol jardueren antolaketan edota praktikan segurtasuna hobetzekoak.

— Lehiaketetako kronometrajea, kontrola, garraioa eta markaketa hobetzekoak.

— Kirol ekipamendu eramangarriak, federazioek horrelakorik ez duten instalazioetan jarduerak antolatu ahal izan dezaten.

— Kronometrajerako material eramangarriak.

— Kirol materiala garraiatzeko eta lehiaketatako joan-etorrietarako ibilgailuak eta osagarriak.

3. Kirol modalitate berrietako edota Gipuzkoan sustagarri diren modalitateetako material orokorra. Materialaren jabetza eta kudeaketa federazioarenak izango dira, eta material hori federazioaren aktiboen balantzean azalduko da hiru urtetan gutxienez.

4. Informatika materiala. Federazio edo klub erabiltzailearen jabetzan geratuko da material hori. Kirol jarduerаren kudeaketa errazten duten ekipo eta programa informatikoak diruz laguntzea da helburua. Diruz lagundutako material hori entitate onuradunaren aktiboen balantzean azalduko da bi urtetan gutxienez.

Sarbide publikoko web orriak edo aplikazio informatikoak direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua eta zuzena bermatu beharko da. Web orrietan, beste aldetik, erabiltzaile desgaituen aldeko irisgarritasuneko irizpideak bete beharko dira.

*5. Abono de la subvención.*

1. El abono de la ayuda económica que corresponda se realizará, en un único pago, en el momento de la concesión.

2. Excepcionalmente, a instancia de parte, y en el caso de entidades que habitualmente vienen recibiendo ayudas por este concepto y puedan garantizar su participación en campeonatos durante la temporada deportiva comprendida en la convocatoria de las subvenciones, se podrá conceder y abonar en concepto de anticipo el 50% de la cantidad percibida en el ejercicio anterior.

ANEXO 5

ADQUISICION DE MATERIAL DEPORTIVO E INFORMATICO

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento de ayudas económicas, en régimen de concurrencia competitiva, para la adquisición del siguiente material:

a) Material deportivo e informático destinado al fomento del deporte de rendimiento por parte de clubes y federaciones y que pueda incluirse en alguno de los siguientes apartados:

1. Material tecnológico. Se considera así aquel material que sirve para la mejora técnica de deportistas de Gipuzkoa, de alta tecnología y de difícil adquisición por su alto coste económico. Este material será propiedad de la federación y corresponderá su gestión a la misma, debiendo permanecer en el activo de su balance durante un período mínimo de tres años. El uso de este material se destinará a la tecnificación de deportistas de Gipuzkoa.

2. Material de uso general. Se considera así aquel material que sirve para la mejora de la seguridad, control, cronometraje y marcaje de las actividades deportivas. Este material será propiedad de la federación y corresponderá su gestión a la misma, debiendo permanecer en el activo de su balance durante un período mínimo de tres años.

Dentro de este tipo de material se incluirá:

— Material para la mejora de la seguridad en la organización y/o práctica de las actividades deportivas.

— Material para la mejora del cronometraje, control, transporte y marcaje de las competiciones.

— Equipamiento deportivo portátil, que permita a las federaciones la organización de actividades en las instalaciones que no dispongan del mismo.

— Material de cronometraje portátil.

— Vehículos y accesorios para el transporte de material deportivo y desplazamientos a competiciones.

3. Material general de promoción de nuevas modalidades deportivas o de aquéllas que sean susceptibles de ser promocionadas en Gipuzkoa. Este material será propiedad de la federación y corresponderá su gestión a la misma, debiendo permanecer en el activo de su balance durante un periodo mínimo de tres años.

4. Material informático. Este material será propiedad de la federación o club que sean usuarios de los mismos. Se trata de subvencionar equipos y programas informáticos que faciliten la gestión de la actividad deportiva. El material subvencionado deberá permanecer en el activo del balance de la entidad beneficiaria durante un período mínimo de dos años.

En el caso de páginas web o aplicaciones informáticas de acceso público, se deberá garantizar el uso equilibrado y correcto de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca. Asimismo, las páginas web deberán ajustarse a las directrices de accesibilidad para usuarios con discapacidades.

5. Lehiaketetarako eta entrenamenduetarako material suntsikorra. Material mota horren barruan, lehiaketa eta entrenamendukoak sartzen dira, eta baita kirol materiala garraiatzeko eta lehiaketetako joan-etorrietarako ibilgailuak eta osagarriak ere. Material hau, batik bat, kluben jabetzakoa izango da eta horiek arduratuko dira kudeatzeaz.

b) Laguntzen deialdia egiten den urtean hasten den ikasturteko, edota, bukatzen den ikasturteko eskola kiroleko jarduera programa garatzeko federazioentzako kirol materiala.

c) Gipuzkoako lurralde historikoko ikastetxeek eta klubek eskola kiroleko programako jardueretan erabiltzeko kirol materiala.

2. *Onuradunak.*

a) 1.a) oinarriko 1, 2 eta 3 ataletan seinalatutako materiala erosteko laguntzak zuzenduta daude urtez urteko deialdian, txandaka, aipatzen diren kirol modalitateetako Gipuzkoako kirol federazioei bakarrik.

1.a) oinarriko 4. atalean aipatutako material informatikoa lortzeko laguntzak federazio guztiei, Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteari eta Gipuzkoako kirol klubei zuzenduta daude.

1.a) oinarriko 5. ataleko laguntzak urtez urteko deialdian, txandaka, aipatzen diren kirol modalitateetako klubei eta Gipuzkoako kirol federazioei zuzenduta daude.

b) 1.b) oinarriko laguntzak dagokion ikasturteko eskola kiroleko programako jardueretan laguntza teknikoko zereginak eskuordetu zaizkien Gipuzkoako kirol federazioei, klubei edo irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei bakarrik zuzenduta daude.

c) Laguntzen deialdi urtea amaitzen den ikasturterako Eskola Kiroleko Jardueren Programako jardueretan inskribatutako Gipuzkoako lurralde historikoko ikastetxe guztiek eta parte hartzeko lehiaketetan parte hartu duten klubek jaso ditzakete 1.c) oinarrian aurreikusitako laguntzak.

3. *Eskaerak aurkeztea.*

Ondoko agiriak erantsi behar zaizkio eskaera orriari:

a) Kirol klub eta federazioentzako material informatikoa erosteko laguntzetarako, erostekoa den ekipamenduaren ezaugarriak eta aurrekontua.

b) Kirol modalitate ezberdinetan laguntza teknikoaz arduratuko diren federazio, klub eta bestelako entitateek eskola kiroleko jardueren programa garatzeko erabiliko dituzten kirol materialak erosteko diru laguntzetarako:

— Gipuzkoako kirol federazio, klub, edo entitate bakoitzak hastekoa den ikasturterako edo, bestela, aurreko ikasturterako egindako kirol materialeko planari buruz osatutako txostena, dituen material beharrak zehazten dituena.

— Eskatutako kirol materialaren kostuaren aurrekontu egiaztatua.

c) Ikastetxeetarako eta kirol klubetarako kirol materiala erosteko diru laguntzetarako eskaera orriak Kirol Zuzendaritza Nagusiak horretarako bidaliko duen zirkularrean jasotako eredu, epe eta gainerako baldintzei egokituta egin behar dira.

d) Materialaren prezioa 12.000 eurotik gorakoa denean, hiru hornitzaile ezberdinek egindako eskaintzak aurkeztu beharko dira, gutxienez.

5. Material fungible de competición y de entrenamientos. Dentro de este tipo de material se incluirá material de competición y de entrenamiento, así como vehículos y accesorios para el transporte de material deportivo y desplazamientos a competiciones. Este material será, principalmente, propiedad de los clubes y la gestión del mismo corresponderá a éstos.

b) Material deportivo destinado a federaciones para su utilización en el desarrollo del programa de actividades de deporte escolar del curso que se inicie en el año de convocatoria de las ayudas o del curso que finalice ese año.

c) Material deportivo destinado a los centros escolares y clubes del Territorio Histórico de Gipuzkoa para su uso en las actividades incluidas en el programa de deporte escolar.

2. *Entidades beneficiarias.*

a) A las ayudas para el material señalado en los apartados 1, 2 y 3 de la base 1.ª a), podrán optar exclusivamente las federaciones deportivas guipuzcoanas de las modalidades deportivas que, de forma rotatoria, hayan sido señaladas en la convocatoria de cada año.

A las referidas al material informático, contemplado en el apartado 4 de la base 1.ª a), podrán optar todas las federaciones, la Asociación de Federaciones Deportivas de Gipuzkoa y los clubes deportivos guipuzcoanos.

Al material descrito en apartado 5 de la base 1.ª a), podrán optar las federaciones deportivas guipuzcoanas y los clubes de las modalidades deportivas que, de forma rotatoria, hayan sido señaladas en la convocatoria anual.

b) A las ayudas contempladas en la base 1.ª b) podrán optar exclusivamente aquellas federaciones deportivas guipuzcoanas, clubes u otras entidades sin ánimo de lucro en las que se delegue la realización de las funciones públicas de asistencia técnica a las actividades incluidas en el programa de deporte escolar del curso correspondiente.

c) A las ayudas contempladas en la base 1.ª c) podrán acogerse todos los centros escolares del Territorio Histórico de Gipuzkoa que estén inscritos en actividades incluidas en el programa de deporte escolar para el curso que finalice el año de convocatoria de las ayudas, así como los clubes que han tomado parte en competiciones de participación.

3. *Presentación de instancias.*

Las instancias de solicitud irán acompañadas de la siguiente documentación:

a) Para las ayudas para material informático destinado a clubes y federaciones, descripción de las características del equipamiento a adquirir y presupuesto del mismo.

b) Para las ayudas para material deportivo destinado a federaciones, clubes u otras entidades responsables de la asistencia técnica de las diversas modalidades para su utilización en el desarrollo del programa de actividades de deporte escolar:

— Informe elaborado por la propia federación deportiva guipuzcoana o club o entidad, respecto del plan de material deportivo para el curso escolar que comienza o, en su caso, el anterior, en el que se especifiquen las necesidades de material.

— Presupuesto contrastado del coste del material deportivo solicitado.

c) Las instancias de solicitud para las ayudas para el material deportivo destinado a los centros escolares y a los clubes deportivos se adaptarán a los modelos, plazos y restantes condiciones contempladas en la circular que sea remitida al efecto por la Dirección General de Deportes.

d) Cuando el importe del material supere la cuantía de 12.000 euros, se deberán presentar, como mínimo, tres ofertas de diferentes proveedores.

*4. Eskaerak aztertzea eta laguntzen zenbatekoa finkatzea.*

Oinarri hauetan xedatutako materiala erosteko diru laguntza finkatzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Klub eta federazioentzako kirol eta informatikako materiala erosteko diru laguntzetarako:

— Material teknologikoa: Materialaren erosketa kostuaren %75eko diru laguntza gehienez.

— Erabilpen orokorreko materiala: Materialaren erosketa kostuaren %75eko diru laguntza gehienez.

— Erabilera orokorreko materiala: Erosketa kostuaren % 50eko diru laguntza gehienez.

— Informatikako materiala, tresneria eta programak eta web orriak. Material mota hori erostean, diru laguntzako modulu hauek aplikatuko dira, nahiz eta diru laguntzaren zenbatekoak inoiz ez duen material edo aplikazioaren erosketa kostuaren %50 gaindituko.

— Ordenagailu pertsonala osagarri guztiekin (PC, pantaila, teklatua, irakurgailua eta grabatzailea): 600 euro.

— Monitoreak: 100 euro.

— Grabatzailea: 75 euro.

— Ordenagailu eramangarria: 1.000 euro.

— Inprimagailua: 250 euro.

— Eskanerra: 150 euro.

— Web orria: 1.500 euro.

— Programa informatikoak: 1.000 euro.

— Txartel irakurgailuak eta memoriak: 40 euro.

— Klub eta federazioentzako material suntsigarria: Erosketa kostuaren %50eko diru laguntza gehienez, ibilgailuak eta osagarriak erosteko laguntzen kasuan izan ezik, horrelakoetan % 30eko laguntza emango baita gehienez.

Inolaz ere ez da subentzionatuko kirol jardueretan erabiltzeko animalien erosketarik.

Nolanahi ere, eta eskatutako materiala edozein delarik ere, gehienez ere 9.000 euroko diru laguntza emango da unitate bakoitzeko.

Aurrekontuan xedatutakoa ez bada nahikoa material eskaerei aurre egiteko, irizpide hauek aplikatu dira eskaerak aukeratu eta zenbateko diru laguntza eman behar den finkatzeko: Materialaren xedea, materialaren premia, aurreko ekitaldian erositako antzeko materiala eta kirol modalitateko lizentzia kopurua.

b) Eskola kiroleko jarduera programan erabiltzeko federazioentzako kirol materialari dagokionez, irizpide hauek aplikatuko dira.

1. Irizpide orokorra:

— Laguntza hauek emateko erabiltzen den irizpide orokorra da eskola kiroleko jarduera programa garatzeko bakarrik erabiliko diren kirol material jakin batzuk erosi ahal izatea. Diru laguntzaren zenbatekoa materialaren erosketa prezioaren %100 izango da.

2. Irizpide partikularrak:

— Kontuan hartuz programa horretan lau jarduera mota jasotzen direla eta oso ezaugarri desberdinak dituzten hogeita hamar kirol modalitate baino gehiagori dagozkiela, eskola kirolari buruz kirol federazioek Kirol Zerbitzuarekin hitzartutako jardun planetan zehaztuko dira modalitate bakoitzari dagozkion material beharrak.

*4. Evaluación y cuantificación de las subvenciones.*

Para la cuantificación de la ayuda económica para la adquisición del material objeto de estas bases, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

a) Para las ayudas al material deportivo e informático destinado a clubes y federaciones:

— Material tecnológico, una subvención máxima del 75% del coste de adquisición del material.

— Material de uso general, una subvención máxima del 75% del coste de adquisición.

— Material de promoción general, una subvención máxima del 50% del coste de adquisición.

— Material y equipos informáticos, programas informáticos y páginas webs. Para la adquisición de este tipo de material se establecerá en función de los siguientes módulos de subvención máxima, sin que el importe de la subvención pueda superar, en ningún caso, el 50% del coste de adquisición del material o aplicación subvencionados:

— Ordenador personal completo (PC, pantalla, teclado, lector y regrabador): 600 euros.

— Monitores: 100 euros.

— Regrabadores: 75 euros.

— Portátil: 1.000 euros.

— Impresora: 250 euros.

— Scaner: 150 euros.

— Página web: 1.500 euros.

— Programas informáticos: 1.000 euros.

— Lectores de tarjetas y memorias: 40 euros.

— Material fungible destinado a los clubes y a las federaciones, una subvención máxima del 50% del coste de adquisición, salvo en las ayudas a la adquisición de vehículos y accesorios en las que el porcentaje máximo será del 30%.

No se subvencionará en ningún caso la compra de animales para su utilización en actividades deportivas.

En cualquier caso, sea cual sea el tipo de material solicitado, el coste máximo subvencionable será de 9.000 euros por unidad.

Para la selección y cuantificación de las solicitudes relativas a cualquier tipo de material, cuando el material solicitado supere las previsiones presupuestarias de cada ejercicio, se aplicarán los siguientes criterios: El destino del material, la necesidad del mismo, el material similar adquirido en ejercicios anteriores y el número de licencias de las modalidades deportivas.

b) En el caso de material deportivo destinado a federaciones para su utilización en el programa de actividades de deporte escolar, los criterios a aplicar serán los siguientes:

1. Criterio general:

— El criterio general utilizado para la concesión de estas ayudas es el de posibilitar la adquisición de determinados artículos deportivos necesarios para su utilización exclusiva en el desarrollo de las actividades del programa de deporte escolar. El importe de la subvención consistirá en el 100% del precio de adquisición del material.

2. Criterios particulares:

— Dado que en dicho programa se recogen cuatro clases de actividades, que afectan a más de treinta modalidades deportivas distintas, con problemáticas muy diferentes entre sí, las necesidades de material correspondientes a cada una de las modalidades se establecen en función de los planes de actuación de las federaciones deportivas en materia de deporte escolar, planes acordados con el Servicio de Deportes.

— Nolanahi ere, kasu guztietan kontuan hartuko da erosi beharreko kirol materiala ikastetxe bakarreko ikasleentzat soilik ez izatea, baizik eta ikastetxe ezberdinetako kirol praktika ahalbidetzea.

— Horrela, parte hartzeko lehiaketei dagokienez, federazioek eta Foru Aldundiko teknikariek adostuta ezarritako arauzko egokitzapenak praktikan jartzeko balio duen materiala erosteko dira diru laguntzak hauek, esate baterako, mini eskubaloiko ateak, 8 futbolekoak, mini hockeykoak, mini basketeko saskiak, jaurtiketako pilotak eta atletismoko hesiak, piraguismoko dortsalak, judoko tatamia, gimnasia erritmikoko tapizak eta abar erosteko.

— Kiroletan hasteko jarduerei dagokienez, jardueretan laguntza teknikoa ematen duten federazioek beren programa teknikoa zuzen garatzeko behar den materiala hornitzea da helburua: Belan hasteko kanpainarako belaontziak eta zodiak ontziak; errugbian hasteko baloiak eta zapiak; igerian ikasteko koltxonetak, goma-aparreko makilak, tapizak eta abar; piraguismoan hasteko piraguak; ur azpiko jarduеretarako betaurrekoak eta hegatsak; mendian ibiltzen hasteko sokak, mosketoiak, kanpin-dendak eta abar; bai eta bideoak, liburuak eta bestelako material didaktikoak ere.

— Teknifikazioko jarduerei dagokienez, saskibaloiko, eskubaloiko, etab. jardueretan erabili beharreko baloiak erosteko izango dira laguntzak.

— Errendimenduan hasteko lehiaketei dagokienez, kirol modalitateen antolaketaren barruan zenbait material erosteko laguntzak emango dira.

c) Eskola kiroleko jarduera programan erabiltzeko ikastetxeentzako eta klubentzako kirol materialari dagokionez, irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Irizpide orokorra:

— Aurreko ikasturteko eskola kiroleko programaren arabera antolatutako jardueretan ikastetxeko zenbatek hartu duen parte hartuko da kontuan, hau da, kiroletan hasteko jardueretan eta parte hartzeko lehiaketetan zenbat ikaslek eman duen izena.

2. Irizpide partikularrak:

— Behin parte hartzaileen kopuruak jasota, puntuaketari ekingo zaio, jardueren puntuazioetan zehaztu ahal izateko, ahal den neurrian behintzat, jarduera batean edo bestean parte hartzeak izan dezakeen dedikazio maila, zailtasuna, kostua, eta abar.

— Puntuazio horiek parte hartzeko lehiaketei eta kiroletan hasteko jarduerei dagozkien kopuruei aplikatuko zaizkie.

— Lehiaketetan parte hartzea. Modalitateak lau taldetan daude banatuta, talde bakoitzak bere puntuazioa duelarik:

— 2 puntu: Benjamin kategorian izena emandako guztiak. Ikasle horien kirol askotako praktika baloratzea da xedea, baita jarduerak antolatzeko izandako zailtasunak ere.

— 1,5 puntu. Atal honetan talde kirolak sartzen dira, alegia, saskibaloia, eskubaloia, beisbola eta softbola, futbola, areto futbola, 8ko futbola, herri kirolak, areto hockeya, patin hockeya, errugbia eta boleibola, banaka nahiz taldeka egiten diren atletismo eta igeriketako espezialitateez gain.

— De cualquier modo, en todos los casos se toma en consideración que el material a adquirir no se destine al uso exclusivo del alumnado de un centro escolar, sino que posibilite la práctica deportiva de escolares de distintos centros.

— Así, en lo referente a las competiciones de participación, las ayudas van destinadas a la compra de material que posibilite aplicar las adecuaciones reglamentarias establecidas de común acuerdo entre las federaciones respectivas y el personal técnico de la Diputación Foral: Porterías de mini-balonmano, de fútbol 8, de mini hockey, canastas de mini basket, pelotas de lanzamientos y vallas de atletismo, dorsales de piragüismo, tatami de judo, tapices de gimnasia rítmica, etcétera.

— En lo relativo a las actividades de iniciación, se trata de dotar a las federaciones respectivas, encargadas de la asistencia técnica de las actividades, del material necesario para el correcto desarrollo del programa técnico ofertado: Veleros y zodiacs para la campaña de iniciación a la vela; balones y pañuelos para la campaña de promoción del rugby; colchonetas, palos de gomaespuma, tapices, etc; para el aprendizaje de la natación; piragüas para la iniciación al piragüismo; gafas y aletas de buceo para actividades subacuáticas; cuerdas, mosquetones, tiendas de campaña, etc. para la iniciación a la montaña;. así como vídeos, libros y otros materiales didácticos.

— En lo referente a las actividades de tecnificación, las ayudas serán para la compra de balones a ser utilizados en las actividades de balonmano, baloncesto, etcétera.

— En lo que respecta a las competiciones de iniciación al rendimiento, dentro de los procesos de ordenación de determinadas modalidades, podrá subvencionarse la adquisición de determinados artículos.

c) En el caso de material deportivo destinado a centros escolares y clubes para su utilización en el programa de actividades de deporte escolar, los criterios a aplicar son los siguientes:

1. Criterio general:

— A todos los centros se les tiene en cuenta su participación en las distintas actividades que componen el programa de deporte escolar en el curso anterior, es decir, número de escolares inscritos en las actividades de iniciación como en las competiciones de participación.

2. Criterios particulares:

— Una vez recogidas las cifras de participación, se procede a valorar de modo que las puntuaciones correspondientes a las diferentes actividades reflejen, en la medida de lo posible, el grado de dedicación, dificultad, coste, etc., atribuible a la participación en una u otra actividad.

— Estas puntuaciones se aplican a las cifras referidas a competiciones de participación y a las actividades de iniciación.

— Participación en actividades de competición. Se clasifican las modalidades en cuatro grupos, a los que se aplican las siguientes puntuaciones:

— 2 puntos: Todos los inscritos en categoría benjamín. Se trata de valorar la práctica polideportiva que llevan a cabo estos escolares y las consiguientes dificultades para la organización de las actividades.

— 1,5 puntos: En este apartado se incluyen los deportes colectivos, esto es, baloncesto, balonmano, béisbol y sófbol, fútbol, fútbol 8, fútbol sala, herri kirolak, hockey sala, hockey sobre patines, rugby, voleibol y waterpolo, además de dos especialidades que se realizan tanto individual como colectivamente: Atletismo y natación.

— 1,3 puntu. Atal honetan, programan azaltzen diren banakako kirolak sartzen dira, alegia, esku pilota, palako pilota, joko garbi, zesta punta, tenisa, mahai tenisa, badmintona, judoa, piraguismoa, txirrindularitza, gimnasia, aerobika, karatea, borroka eta sanboa, fondoko eskia, trialtsina eta xakea. Mendizaletasunari dagokionez, federazioak bidaltzen duen zerrendaren arabera finalistak direnak bakarrik hartuko dira kontuan.

— 1,0 puntu. Atal honetan, antolatzeko orduan dituzten ezaugarriengatik ikastetxeei arreta handirik eskatzen ez dieten lehiaketa modalitateak sartzen dira: Irristaketa, tiraketa pneumatikoa, halterofilia, bela eta surfa.

— Kiroletan hasteko jardueretan parte hartzea:

— 0,1 puntu. Izotz gaineko irristaketan hastea, gehienez 30 punturekin ikastetxeko, eta herri kirolak.

— 0,2 puntu. Beisbola-softbola, eskalada, esgrima (1), orientazioa (1), ur azpiko kirolak (1), oinarrizko sorospena, belar gaineko hockeya, padelean hastea (1), pool billarrean hastea (1) eta aerobika.

— 0,4 puntu. Mendia ezagutzea (1 eta 2), eskrima (2), boleibola, golfa (1), hipika (1), parke naturalak (1 eta 2), orientazioa (2), piraguismoa, ibilaldiak, uretako sorospena, triatloia, igeriketa sinkronizatuan hastea, padela (2), pool billarra (2) eta zapi errugbia.

— 0,6 puntu. Xakea, badmintona, txirrindularitza, golfa (2), mini tenisa, igeriketa, surfean hastea, errugbia, ur azpiko kirolak (2), bela, waterpoloa, hipika (2) eta kartinga.

* Bi maila daudenean (1 eta 2), 1 oinarrizkoa izango da eta 2 iraupen handiena duena.

3. Diru laguntzen kalkulua:

— Dagozkion eragiketak eginda, parte hartu duten ikastetxe eta klub guztiek lortutako puntu guztien batuketa egingo da.

— Laguntza lerro honetako diru kopurua puntu guztien artean zatituz puntu baten balioa aurkituko da.

— Ondoren, ikastetxe edo klubari emandako puntuak puntu bakoitzaren balioarekin biderkatuko dira, entitate horri dagokion diru kopurua ateratzeko.

— 90 euroko gutxieneko kopurua lortzen ez duten entitateei gutxieneko hori emango zaie.

— Aurrekontu osotik lehenengo gutxieneko laguntzak murriztuz eta modu horretan lagundutako ikastetxe eta klubei dagozkien puntuak puntu batuketari kenduz, birkalkulatu egingo dira puntu baten balioa eta gainerako entitateei eman beharreko diru laguntzak.

— Ikastetxeren bat geratzen bada 90 euroko gutxieneko diru laguntza erdietsi gabe, gutxieneko hori emango zaio eta puntuaren balioa birkalkulatuko da.

— Eta modu horretan jokatzen jarraituko da aurrekontua agortu arte.

*5. Diru laguntza ordaintzea.*

1. 1.oinarriko a) eta b) ataletan aurreikusitako diru laguntzak ordainketa bakar batean ordainduko dira, beti ere laguntza hartu behar duen erakundeak 6. oinarrian adieraziko diren obligazioak bete dituela egiaztatzen badu.

2. 1. oinarriko c) atalean aurreikusitako diru laguntza Kirol Zuzendaritza Nagusiak kirol materiala hornitzeko egiten duen kontratazioan esleipendun gertatzen den enpresari ordainduko zaio zuzenean.

— 1,3 puntos: Los deportes individuales contemplados en el programa: Pelota mano, pelota paleta, joko garbi, cesta punta, tenis, tenis de mesa, badminton, judo, piragüismo, ciclismo, gimnasia, aerobic, kárate, lucha y sambo, esquí de fondo, trialsin y ajedrez. En el caso del montañismo, se contabilizan sólo finalistas, según el listado que envía la federación.

— 1,0 punto: Las modalidades de competición que, por sus características organizativas, no requieren una gran atención por parte de los centros escolares: Patinaje, tiro neumático, halterofilia, vela y surf.

— Participación en actividades de iniciación:

— 0,1 puntos: Iniciación al patinaje sobre hielo, con un máximo de 30 puntos por centro, y herri kirolak.

— 0,2 puntos: Béisbol-sófbol, escalada, esgrima (1), orientación(1), subacuáticas (1), primeros auxilios, hockey hierba, iniciación al padel (1), iniciación al billar pool (1) y aerobic.

— 0,4 puntos: Conocer la montaña (1 y 2), esgrima (2), voleibol, golf (1), hípica (1), parques naturales (1 y 2), orientación (2), piragüismo, senderos, socorrismo acuático, triatlón, iniciación a la natación sincronizada, padel (2), billar pool (2) y rugby pañuelito.

— 0,6 puntos: Ajedrez, badminton, ciclismo, golf (2), mini tenis, natación, iniciación surf, rugby, subacuáticas (2), vela, waterpolo, hípica (2) y karting.

* En los casos que haya dos niveles (1 y 2) se considera 1 el básico y 2 el de mayor duración.

3. Cálculo de las subvenciones:

— Tras realizar las operaciones correspondientes, se halla la suma total de puntos obtenidos por todos los centros escolares y clubes participantes.

— Dividiendo la cantidad prevista para esta línea de subvención entre el número total de puntos se obtiene el valor unitario de cada punto.

— Después se multiplican los puntos obtenidos por cada centro o club por el valor de cada punto para hallar la cantidad que corresponde a cada entidad.

— A las entidades que no alcancen la cantidad mínima de 90 euros, se les concede esa cantidad mínima.

— Descontando del presupuesto total las primeras subvenciones mínimas y restando del total de puntos los que corresponden a los centros escolares y clubes así subvencionados, se vuelve a calcular el valor del punto y las subvenciones a conceder a las entidades que restan.

— Si alguno de éstos ahora no alcanza los 90 euros de subvención, se le concede esta cantidad mínima, y se vuelve a recalcular el valor del punto.

— Se procede sucesivamente del mismo modo hasta agotar el presupuesto.

*5. Abono de la subvención.*

1. El abono de las ayudas contempladas en la base 1.ª a) y b) se efectuará en un solo pago, una vez que la entidad preceptora haya acreditado el cumplimiento de las obligaciones que se señalan en la base 6.ª.

2. El abono de las ayudas contempladas en la base 1.ª c) se efectuará directamente a la empresa adjudicataria del contrato de suministro de material deportivo convocado al efecto por la Dirección General de Deportes.

3. Material motagatik edo kostuagatik kontrol handiagoa behar duen materiala edo ibilgailuak erosteko diru laguntzen kasuan, lankidetza hitzarmen bat sinatuko da, proposatutako helburua lortzeko erakunde onuradunek onartzen dituzten betebeharrak zehaztuz.

*6. Laguntza hartzaileen betebeharrak.*

Diru laguntzen onuradun diren federazio, klub edo erakundeek honako obligazioak bete behar dituzte laguntzen deialdiaren urteko urriaren 31 baino lehenago:

— Diruz lagundutako materialean Kirol Zuzendaritza Nagusiaren irudi korporatiboa agertzea, hala erabakitzen denean.

— Behar bezala beteta aurkeztea 5. inprimakia, erositako materialaren xedea, gastuen eta jasotako bestelako diru laguntzen zenbatekoa zehaztuz. Era berean, eskatzen den kasuetan kluben jaso-agiriak ere aurkeztu beharko dira.

— Erositako materialaren %100 egiaztatzen duten jatorrizko fakturak aurkeztea.

— Behin diru laguntza kobratu ondoren, eta hala eskatzen bada, diruz lagundutako materialaren kostu osoa ordaindu izana frogatzen duen agiria aurkeztea (jaso-agiria, banku laburpena) .

— 1. oinarrian jarritako epean gutxienez, diru laguntza jaso duen materialaren xede zehatza mantentzea.

6 ERANSKINA

IGERIAN IKASTEKO JARDUERAK IKASLEENTZAT

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea diru laguntzak ematea, elkarrekiko lehiarik gabe, Gipuzkoako lurralde historikoko ikastetxeetako lehen hezkuntzako 1, 2, 3 eta 4. mailako ikasleentzako igeriketa ikastaroak antolatzeko.

*2. Onuradunak.*

Gipuzkoako ikastetxeek jaso ahal izango dituzte igeriketa ikastaroak antolatzeko diru laguntzak. Hezkuntza bereziko ikastetxeek, lehen hezkuntzako ikastetxeetako hezkuntza bereziko ikasleen gelak eta eskola unitarioek beren ikasle guztiekin parte hartu ahal izango dute.

*3. Eskaerak aurkeztea.*

Oinarri hauetan arautako laguntza ekonomikoak jaso ahal izateko eskaera orriak Kirol Zuzendaritza Nagusiak Gipuzkoako ikastetxeei bidaliko dien zirkularrean jasotako eredu, epe eta gainerako baldintzak betez aurkeztuko dira.

*4. Eskaerak aztertzea eta laguntzen zenbatekoa finkatzea.*

1. Jarduerak udalerrian bertan edo udalerritik gertu kokaturiko igerilekuetan egiten badira eta ikasleak eramateko ez garraio publikorik ez pribaturik ez bada behar, ikastetxeek 12 euroko laguntza jasoko dute ikastaroan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko.

2. Jarduerak udalerritik kanpoko igerilekuetan egiten badira, ikastetxeek 18 euroko laguntza jasoko dute ikastaroan parte hartzen duen ikasle bakoitzeko.

3. En el supuesto de ayudas relativas a la adquisición de material o de vehículos que, por su naturaleza o importe, precisen un mayor control de su utilización, se suscribirá un convenio de colaboración en el que se detallarán las obligaciones que se asumen las entidades beneficiarias en orden a la consecución del objetivo propuesto.

*6. Obligaciones de entidades perceptoras.*

Las federaciones, clubes u otras entidades perceptoras de subvención, antes del 31 de octubre del año de convocatoria de las ayudas, estarán obligados a:

— Incorporar, cuando así se determine, al material subvencionado la imagen corporativa de la Dirección General de Deportes.

— Presentar el formulario 5 debidamente cumplimentado en el que se indicará el destino dado al material adquirido, el importe total de los gastos y de cualquier tipo de ayuda económica percibida. Asimismo, se deberán presentar los recibís de los clubes en los casos que así se requiera.

— Presentar facturas originales justificativas del 100% de la adquisición efectuada.

— Realizado el cobro de la subvención, presentar, cuando así se requiera, el justificante de pago (recibí, extracto bancario, etc.) que demuestre el abono del coste total del material subvencionado.

— Mantener el destino concreto del material para el que se concedió la subvención durante el plazo mínimo señalado en la base 1.ª

ANEXO 6

ACTIVIDADES DE PROMOCION DEL APRENDIZAJE DE LA NATACION DIRIGIDA A ESCOLARES

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento, en régimen de concurrencia no competitiva, de ayudas económicas para la organización de actividades de promoción del aprendizaje de la natación dirigidas a escolares del Territorio Histórico de Gipuzkoa de los niveles 1, 2, 3 y 4 de la enseñanza primaria.

*2. Entidades beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas los centros escolares de Gipuzkoa. Los centros de educación especial, las aulas para escolares de educación especial integradas en centros de educación primaria y las escuelas unitarias podrán participar con todo el alumnado.

*3. Presentación de instancias.*

Las instancias de solicitud para acogerse a las ayudas reguladas en las presentes bases se adaptarán a los modelos, plazos y restantes condiciones que sean comunicados por la Dirección General de Deportes a los centros escolares de Gipuzkoa.

*4. Evaluación y cuantificación de las subvenciones.*

1. En el caso de centros escolares que realicen la actividad en piscinas sitas en su término municipal o en un término municipal próximo al mismo, de modo que el traslado de escolares a la piscina no exija la utilización de ningún medio de transporte, público o privado, percibirán una ayuda máxima de 12 euros por cada escolar que participe en el curso.

2. En el caso de centros escolares que realicen la actividad en piscinas sitas fuera de su término municipal, percibirán una ayuda máxima de 18 euros por cada escolar que participe en un curso.

*5. Diru laguntza ordaintzea.*

Igeriketa ikastaroak antolatzeko emandako diru laguntza dena batera ordainduko da, kanpaina amaitu eta diru laguntza jasotzen dutenek talde eta ikastaro bakoitzari buruzko memoria aurkeztu ondoren, memoriak berarekin izango ditu emaitzen estatistika eta instalazioetako zuzendariaren edo irakaslearen ziurtagiria, jarduera egin dela egiaztatzen duena.

*6. Laguntza hartzaileen betebeharrak.*

Diru laguntzak jasotzen dituzten entitateek honako betebehar hauek dituzte:

a) Diru laguntza jasotzea zuritzen duen dokumentazioa aurkeztea.

b) Parte hartzen duten ikasleek jardueretan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dutela bermatzea.

c) 3. oinarrian aipatzen den Kirol Zuzendaritza Nagusiaren jakinerazpenetik eratorritako gainerakoak.

7 ERANSKINA
GAZTEEN ARTEAN KIROLA SUSTATZEKO PLANA (GKP)
EZARRI ETA GARATZEA

*1. Helburua.*

Oinarri hauen helburua da arautzea diru laguntzak ematea, elkarrekiko lehiarik gabe, gazteen artean kirola sustatzeko plana (aurrerantzean GKP) ezartzeko eta garatzeko.

Konkretuki, diruz lagunduko diren jarduerak izango dira kirol klubek, kirol taldeek eta ikastetxeek infantil, kadete eta jubenil kategorientzako antolatzen dituztenak, GKP lantzeko Kirol Zuzendaritza Nagusiarekin hitzarturiko modalitateekin bat etorriz, helburu bezala harturik kirol teknikarien kalitatea hobetzea, arbitroak atzematea eta egiturak profesionalizatzea, non eta betetzen diren eranskin honetako 4. oinarrian ezarritako baldintzak eta irizpideak.

*2. Entitate onuradunak.*

Erakunde hauek izan daitezke diru laguntzen onuradunak: Aurreko oinarriak adierazitako ekintzetakoren bat garatzen ari diren eta 4. oinarrian adierazitako betebeharrak betetzen dituzten kirol klubak, kirol elkarteak eta ikastetxeak.

*3. Eskaerak aurkeztea.*

1. Eskaera orriekin batera inprimaki hauek aurkeztu behar dira:

— 7.1 inprimakia, GKPko teknikariei dagokiena.

— 7.2 inprimakia, GKPko arbitroei dagokiena.

— 7.3 inprimakia, egiturak profesionalizatzeari dagokiena.

Elkarlanean aritzen diren entitateek batera aurkez dezakete eskaera (halakoetan, parte hartzen duten entitate guztien baimena ere aurkeztu beharko da).

2. Egiturak profesionalizatzeko diru laguntzen kasuan, profesionalaren lan egoera normalizatua egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da. Lan egoera normalizatuan dauden teknikariak badituzte dokumentazio bera aurkeztu beharko da.

*5. Abono de la subvención.*

La subvención será abonada en un único pago, finalizada la campaña y previa presentación de la memoria relativa a cada grupo y curso, con estadística de resultados y certificado de la dirección técnica de la instalación o profesorado que acredite la realización de la actividad.

*6. Obligaciones de entidades perceptoras.*

Las entidades beneficiarias de las ayudas económicas deberán cumplir las siguientes obligaciones:

a) Presentar la documentación que justifica la percepción de la subvención.

b) Garantizar que los y las escolares participantes puedan realizar las actividades en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.

c) Las demás que se deriven de la comunicación que realice la Dirección General de Deportes a la que alude la base 3.ª

ANEXO 7
IMPLANTACION Y DESARROLLO DEL PLAN DEL FOMENTO
DEL DEPORTE JUVENIL (PDJ)

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento, en régimen de concurrencia no competitiva, de ayudas económicas destinadas a la implantación y desarrollo del Plan del Fomento del Deporte Juvenil (en adelante PDJ).

En concreto, las acciones objeto de subvención son las desarrolladas por los clubes, agrupaciones deportivas y centros escolares dirigidas a las categorías infantil, cadete o juvenil, en las modalidades con acuerdos alcanzados con la Dirección General de Deportes para el desarrollo del PDJ, con el objetivo de mejorar la calidad del personal técnico deportivo, de captar árbitros y de profesionalizar sus estructuras, conforme a los requisitos y criterios que se citan en la base 4.ª del presente anexo.

*2. Entidades beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas económicas los clubes, agrupaciones deportivas y centros escolares que se encuentren desarrollando alguna de las acciones indicadas en la base anterior y cumplan con los requisitos señalados en la base 4.ª

*3. Presentación de instancias.*

1. Las instancias de solicitud deberán acompañarse de los formularios siguientes:

— Formulario 7.1 correspondiente a técnicos PDJ.

— Formulario 7.2 correspondiente a árbitros PDJ.

— Formulario 7.3 correspondiente a la profesionalización de las estructuras.

Esta solicitud podrá ser presentada de forma conjunta por diferentes entidades que colaboren estrechamente (en este caso, deberá adjuntarse la autorización de todas las entidades involucradas).

2. Asimismo, para las ayudas dirigidas a la profesionalización de estructuras, las solicitudes deberán acompañarse de la documentación acreditativa de la situación laboral normalizada del profesional. Está misma documentación será necesaria en caso de disponer de técnicos en situación laboral normalizada.

*4. Eskaerak aztertzea eta laguntzen zenbatekoa finkatzea.*

1. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak:

— Ekipo bakoitzaren arduradun kirol teknikariak, 1. oinarrian aipatutako kategoria eta modalitateetakoak.

— Klub bakoitzak jarritako GPK arbitroak.

— GKPa aurrera eramateko Kirol Zuzendaritza Nagusiaren eta kirol modalitateen ordezkarien artean iritsitako akordioetan ezartzen diren gainerako kontzeptu eta irizpide gehigarriak.

2. Baldintzak:

— Laguntza hauek emateko, Kirol Zuzendaritzak eta GKP garatzeko kirol modalitateetako ordezkariek akordio bat lortu beharko dute aldez aurretik.

— Laguntzen eskatzaileek GKP modalitate adostuetan GKP jarduera gisa izendatutako infantil, kadete eta jubenilen kategorietako lehiaketa ofizialetan parte hartu behar dute.

— Eskainitako zerbitzuengatik erakunde eskatzaileek urteko kuota ezarri behar diete beren mendeko infantil, kadete eta jubenil kategorietako kirolariei. Kuotaren zenbatekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta kirol modalitateko ordezkarien artean erabakiko da GKP akordioetan.

— Profesionalizatzeko laguntzen kasuan, horietaz gainera baldintza hauek ere bete behar dira:

— Taldekako kirol modalitateen kasuan, gutxienez 8 ekipo edukitzea, edo, gutxienez 80 lizentzia edukitzea banakako modalitateetan, infantil, kadete eta jubenil kategorietan, kontuan hartuz modalitate bat baino gehiago, edo, egitura bat baino gehiago.

— Langile bat edukitzea, lan egoera arautua eta gutxienez lanegun erdiko kontratua dituela.

— Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta kirol modalitateko ordezkarien artean erabaki bide diren gainerako baldintza bereziak.

3. Ebaluazio irizpideak:

— Kirol teknikariei buruz aipatzen diren laguntzei dagokienez, modalitate bakoitzean GKPean adostutakoaren arabera erabakiko dira teknikariek bete behar dituzten baldintzak eta teknikari bakoitzarengatik emango diren diru zenbatekoak.

— GKPean parte hartzen duten arbitroentzako laguntzei dagokienez, modalitate bakoitzean GKPean adostutakoaren arabera diru laguntzako modulu bat erabakiko da GKPko arbitro bakoitzeko, bete beharreko baldintzez gain.

— Profesionalizatzeari buruzko laguntzei dagokienez, baremo bat aplikatuko da, kontuan hartuta zenbat ekipo dauden, teknikaria zein lanaldirako kontratatu behar den eta teknikari horrek zein soldata izango duen.

*5. Diru laguntza ordaintzea.*

Teknikariei eta kluben egiturak profesionalizatzeari buruzko kontzeptuak direla-eta, diruz lagunduak izan daitezkeen gastuak zuritu ondoren oso-osorik ordainduko da diru laguntza onartua. Zuritzeko egiaztagiri onartuak dira nominak, 10-T inprimakiak eta zerbitzu enpresen fakturak.

Gainerako kasuetan, diru laguntza onartzen denean ordainduko da.

*4. Evaluación y cuantificación de las subvenciones.*

1. Conceptos subvencionables:

— El personal técnico deportivo responsable de cada equipo en las categorías y modalidades citadas en la base 1.ª

— Las y los árbitros PDJ aportados por cada club.

— El resto de conceptos y criterios adicionales que se establezcan en los acuerdos alcanzados entre la Dirección General de Deportes y representantes de las modalidades deportivas para el desarrollo del PDJ.

2. Requisitos:

— La concesión de estas ayudas económicas estará condicionada a la existencia de un acuerdo PDJ con la modalidad correspondiente.

— Las entidades solicitantes de las ayudas deberán participar en competiciones oficiales de la categoría infantil, cadete y/o juvenil incluidas en los acuerdos PDJ de la modalidad correspondiente como actividades PDJ.

— Asimismo, las entidades solicitantes deberán tener establecido para sus deportistas infantiles, cadetes y juveniles una cuota anual por los servicios ofertados, con un importe fijado en los acuerdos PDJ entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y representantes de la modalidad deportiva.

— En el caso de las ayudas a la profesionalización, se deberán cumplir, además, las siguientes condiciones:

— Disponer de un mínimo de 8 equipos, en el caso de modalidades deportivas colectivas, o de un mínimo de 80 licencias, en las modalidades individuales, entre las categorías infantil, cadete y juvenil, compatibilizados entre una o más modalidades o, incluso, entre varias estructuras.

— Disponer de un o una trabajadora en situación laboral normalizada y contratada al menos para media jornada.

— El resto de condiciones particulares que se establezcan en los acuerdos alcanzados entre la Dirección General de Deportes y representantes de las modalidades deportivas.

3. Criterios de evaluación:

— En lo que se refiere a las ayudas relativas a personal técnico deportivo, en cada acuerdo PDJ con la modalidad correspondiente se establecerán los criterios que debe de cumplir el personal técnico y los importes por cada técnico o técnica.

— En lo que se refiere a las ayudas dirigidas a árbitros PDJ, en cada acuerdo PDJ con las correspondientes modalidades se establecerá un módulo de subvención fijo por cada árbitro PDJ y los requisitos a cumplir.

— En lo que se refiere a las ayudas sobre profesionalización, se aplicará un baremo en función del número de equipos, de la jornada por la que debe estar contratado el ó la profesional y del salario.

*5. Abono de la subvención.*

La subvención será concedida y abonada en su totalidad en el momento en que se presente la justificación de los gastos subvencionables tales como nóminas, 10-T o facturas de empresas de servicios, en los conceptos relativos a personal técnico y a profesionalización de estructuras de los clubes.

En los demás casos, la subvención será abonada en el momento de su concesión.

8 ERANSKINA

DESGAITUENTZAKO KIROL JARDUERAK

1. *Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea diru laguntzak ematea, elkarrekiko lehian, desgaitasunen bat duten ikasleei zuzendutako kirol jarduerak antolatzeko eta pertsona desgaituak kirol sisteman integratzea sustatzeko.

2. *Entitate onuradunak.*

Gipuzkoako lurralde historikoko kirol klubek, ikastetxeek, desgaituen elkarteek eta irabazi asmorik gabeko beste erakundeek eska ditzakete laguntza hauek.

3. *Eskaerak aurkeztea.*

Laguntzen urteko deialdian jarritako epean aurkeztu behar dira eskaerak.

4. *Eskaerak aztertzea eta laguntzen zenbatekoa finkatzea.*

a) Kirolari ezgaituentzako jarduerak:

Ondoko irizpideak eta puntuazioak aplikatuko dira:

— Deialdiaren unean indarrean dagoen denboraldian gauzatzea aurreikusita dagoen kirol jardueren programa: 40 puntu gehienez. Irizpide hori ebaluatzeko, hauexek dira kontuan hartuko diren kontzeptuak:

— Programaren iraupena (urtekoa, hilabetekoa, hamabostekoa, astekoa edota unean unekoa).

— Programatutako jarduera mota (kiroletan hastea, lehiaketa bereizia, lehiaketa integratua, teknikarien prestakuntza, eta abar) .

— Jarduera kopurua.

— Erabilitako hizkuntza.

— Mota guztietako ezgaituentzako jarduerak kontuan hartzea: 20 puntu gehienez.

— Jarduerak Gipuzkoako lurralde historiko osoan antolatzea: 10 puntu gehienez.

— Teknikari adituak prestatzeko jarduerak: 20 puntu gehienez.

— Diru sarreren eta gastuen aurrekontua: 10 puntu gehienez.

Diru sarrera eta gastuen aurrekontuko kontzeptu batzuk ez dira kontuan hartuko, esate baterako, joan-etorriak eta ostatua, kasuan kasuko modalitatean halabeharrezkoak direnean izan ezik.

Gutxienez eskatutako puntuak lortzen ez dituzten proiektuak baztertu ondoren, puntuaren balioa aterako da, zatiketa hau eginda: Diru laguntza lerro honetarako izendatutako gastua zati ezarritako betebeharrak betetzen dituzten eskaera guztiek lortutako puntuen batuketa osoa. Hortik ateratzen den kopurua izango da puntuaren balioa, eta balio hori eta jarduera programa bakoitzari dagokion puntu kopurua biderkatuta aterako da proiektu bakoitzari dagokion diru laguntza. Diru laguntza hori ezin izango da inoiz jarduketaren aurrekontuaren % 50 baino handiagoa izan.

b) Ikasleentzako jarduerak:

Ondoko irizpideak eta puntuazioak aplikatuko dira:

— Lehentasuna izango dute igeriketan hasteko Eskola Kiroleko Jarduera Programan sartuta dauden ikastaroek.

ANEXO 8

ACTIVIDADES DEPORTIVAS DIRIGIDAS A PERSONAS CON DISCAPACIDAD

1. *Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento, en régimen de concurrencia competitiva, de ayudas económicas con destino a la organización de actividades deportivas dirigidas a escolares con discapacidades y para la integración de personas discapacitadas en el sistema deportivo.

2. *Entidades beneficiarias.*

Podrán optar a las ayudas los clubes deportivos, centros escolares, asociaciones de afectados y otras entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3. *Presentación de instancias.*

Las instancias de solicitud deberán ser presentadas en el plazo señalado en la convocatoria anual de estas ayudas.

4. *Evaluación y cuantificación de las subvenciones.*

a) Actividades dirigidas a deportistas con discapacidades:

Se establecen los siguientes criterios y ponderación:

— Programa de actividades deportivas cuya realización esté prevista a lo largo de la vigente temporada deportiva en el momento de la convocatoria, hasta un máximo de 40 puntos. Para realizar la evaluación de este criterio, los conceptos que se tienen en cuenta son:

— Duración del programa (anual, mensual, quincenal, semanal y/o puntual).

— Tipo de actividades programadas (iniciación deportiva, competición diferenciada, competición integrada, formación del personal técnico, etc.).

— Número de actividades.

— Idioma de impartición.

— Inclusión de actividades destinadas a todo tipo de discapacidades, hasta 20 puntos.

— La organización de actividades en todo el Territorio Histórico de Gipuzkoa, hasta 10 puntos.

— Actividades de formación del personal técnico especializado, hasta 20 puntos.

— Presupuesto de ingresos y gastos, hasta 10 puntos.

En el presupuesto de ingresos y gastos, no se tendrán en cuenta conceptos como gastos de desplazamiento y alojamiento, siempre que éstos no sean específicos de la modalidad.

Una vez descartados los proyectos que no obtengan la puntuación mínima exigida, se obtendrá el valor unitario del punto dividiendo el gasto asignado a esta línea de subvenciones entre la suma total de puntos obtenidos por el conjunto de solicitudes que cumplan con los requisitos establecidos. La cantidad resultante se multiplicará por el número de puntos de cada programa de actividades para obtener la subvención correspondiente. Esta subvención no podrá ser superior al 50 % del presupuesto de la actividad.

b) Actividades dirigidas a escolares:

Se establecen los siguientes criterios y baremación:

— Tendrán prioridad los cursos de iniciación a la natación incluidos en el Programa de Actividades de Deporte Escolar.

— Ikastaro horientzako diru laguntza zehazteko, irakaskuntza kostuak finantzatzea izango da irizpide orokorra, gehienez ere 18 euro ikastorduko, eta ez finantzatzea instalakuntzari edota laguntza pertsonalari eta abarri dagozkien kostuak.

— Desgaitasuna duten ikasleentzako beste programen kasuan, aurrekontu baliabideen arabera eta irakaskuntzari dagokion kostua kontuan hartuz erabakiko da diru laguntzaren zenbatekoa. Horretarako, zatiketa hau egingo da: Diru laguntza lerro honetarako gastu baimenduaren gainerakoa zati ezarritako betebeharrak betetzen dituzten eskaeren kopurua. Dena dela, diru laguntzaren zenbatekoa inoiz ere ez da izango programaren kostu osoaren %50 baino handiagoa.

*5. Diru laguntza ordaintzea.*

Onartutako diru laguntza honela ordainduko da:

— Zenbateko osoaren %80 laguntza ematea onartzen denean, aurrerakin gisa.

— Gainontzeko %20 jarduera amaitu eta ondorengo bi hilabeteen barruan eta, nolanahi ere, diru laguntzen deialdiaren urteko urriaren 31 baino lehen 13. oinarri orokorrean ezarritako edukia duen kontu zurigarria aurkeztu eta gero.

9 ERANSKINA
HIRI BARRUKO IBILBIDEAK, SURFA EGITEKO LEKUAK ETA KIROL INSTALAZIOEN SARBIDEAK SEINALATZEA, ETA KIROL INSTALAZIOAK HOBETU ETA BERRITZEKO PROIEKTUAK

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea diru laguntzak ematea, elkarrekiko lehian, ondorengo jarduketak burutzeko:

— Kirola egiteko ibilbideak edo egokitutako guneak seinalatzea (hiri barruko zirkuituak, surfa egiteko spota, arrantza guneak).

— Kirol instalazioen sarbideetan barneko eta kanpoko seinaleak jartzea, 1997ko abenduaren 4ko 20/97 Legeak, irisgarritasuna sustatzekoak, eta haren garapen dekretuek diotenera egokituta.

— Tokiko kirol eskaintzaren kalitatea hobetzea, kirol instalazioak erabiltzaileen eskariei egokituz.

— Kirol instalazioak egin, berritu edo birgaitzea.

*2. Entitate onuradunak.*

Gipuzkoako toki erakundeek, kirol federazioek eta klubek jaso ditzakete laguntza horiek.

*3. Eskaerak aurkeztea.*

Eskaera orriak aurkeztean, proiektu hauetakoren bat ere aurkeztu behar da, jarduketaren lerro nagusiak bertan finkatuta:

— Kirola eta jarduera fisikoa egiteko herritarrek gehien erabiltzen dituzten ibilbideetan edo egokitutako guneetan seinaleak jartzeko proiektua.

— Kirol instalazioetan dauden seinaleak 1997ko abenduaren 4ko 20/97 Legeak, irisgarritasuna sustatzekoak, eta haren garapen dekretuek ezarritako irizpideetara egokitzeko proiektua.

— Para determinar la ayuda económica a estos cursos, el criterio general será financiar los costes de docencia, hasta un máximo de 18 euros por hora de clase, y no financiar los costes correspondientes a instalación, personal de apoyo, etcétera.

— En el caso de otros programas dirigidos a escolares con discapacidades, la cuantía de la subvención se determinará de acuerdo a las disponibilidades presupuestarias y tomando en consideración el coste correspondiente a la docencia. Para ello, se dividirá el resto del gasto autorizado para esta línea de subvenciones por el conjunto de solicitudes que cumplan los requisitos establecidos, sin que, en ningún caso, el importe de la ayuda pueda superar el 50% del coste total del programa.

*5. Abono de la subvención.*

La subvención concedida será abonada del modo siguiente:

— El 80% del total del importe, en el momento de la concesión en concepto de anticipo.

— El 20% restante, a la presentación, dentro de los dos meses siguientes a la finalización de la actividad y, en cualquier caso, antes del 31 de octubre del año de la convocatoria de las ayudas, de la cuenta justificativa, con el contenido determinado en la base general 13.ª

ANEXO 9
SEÑALIZACION DE RECORRIDOS URBANOS, ZONAS DE PRACTICA DE SURF Y DE ACCESOS A INSTALACIONES DEPORTIVAS, Y PROYECTOS DE MEJORA Y REFORMA DE INSTALACIONES DEPORTIVAS

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento, en régimen de concurrencia competitiva, de ayudas económicas con destino a las siguientes actuaciones:

— La señalización de los recorridos o de las áreas adaptadas para la práctica físico-deportiva (señalización de circuitos urbanos, «spot» de surf, áreas de pesca,).

— La señalización de accesos (interiores y exteriores) a las instalaciones deportivas que se adecúen a la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la promoción de la accesibilidad, y a sus decretos de desarrollo.

— La mejora de la calidad de la oferta deportiva local a través de la adaptación de instalaciones deportivas a las demandas de las y los usuarios.

— La construcción, reforma o rehabilitación de instalaciones deportivas.

*2. Entidades beneficiarias.*

Podrán optar a las ayudas las entidades locales, las federaciones deportivas y los clubes de Gipuzkoa.

*3. Presentación de instancias.*

Las instancias de solicitud deberán ir acompañadas de alguno de los siguientes proyectos en los que se fijen las líneas maestras de la intervención, según corresponda:

— Proyecto de señalización de los recorridos o de las áreas adaptadas para la práctica físico-deportiva.

— Proyecto orientado a adecuar los elementos de señalización habilitados en las instalaciones deportivas a los criterios de actuación que, a este respecto, se recogen en la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la promoción de la accesibilidad, y en sus decretos de desarrollo.

— Kirol instalazioak erabiltzaileen eskariei egokituz tokiko kirol eskaintzaren kalitatea hobetzera bideratutako proiektua.

— Kirol instalazioak egin, berritu edo birgaitzeko proiektuak.

*4. Eskaerak aztertzea eta laguntzaren zenbatekoa finkatzea.*

1. Diru laguntzaren zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren eremuaren eta aurrekontuaren arabera erabakiko da.

2. Diru laguntzaren zenbatekoak ez ditu gaindituko kopuru hauek:

— 6.000 euro, kirola egiteko ibilbideetan edo egokitutako guneetan seinaleak jartzeko.

— 1.500 euro, surfa egiteko lekuetan seinaleak jartzeko.

— 6.000 euro, kirol instalazioetako sarbideak seinalizatzeko.

— 1.500 euro, tokiko kirol eskaintzaren kalitatea hobetzeko azterketa proiektuak egiteko.

— 50.000 euro, kirol instalazioak egin, berritzeko edo birgaitzeko proiektuetarako.

— 5.000 euro, kirol instalazioetako irisgarritasuna hobetzeko proiektuetarako.

— 50.000 euro, lurralde esparruko teknifikazio zentroetarako.

3. Inola ere diru laguntza ez da esku hartzearen kostuaren %50 baino gehiago izango.

4. Diruz lagunduak izango diren jarduerak hautatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Eragin esparrua.

— Proiektuaren egokitasuna.

— Balizko erabiltzaile kopurua.

— Eraikuntza irtenbideak.

5. Kirol instalazioak eraiki, berritu eta birgaitzeko proiektuen kasuan, lehentasuna emango zaie honelako esku-hartzeei:

— Eraikitzea, birmodaltzea eta birgaitzea «oinarrizko sareko» tokiko kirol ekipamenduak, EUSTAT-–Euskal Estatistika Erakundeak emandako azken datuen arabera 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietakoak.

— Hirietako kirol ekipamenduak, jende asko bizi den tokietan jartzekoak (parkeetan, plazetan, kirol instalazioen ondoan) . Jarduketa horiek gizarteko sektore jakin batzuen artean ariketa fisikoa eta kirola sustatzera zuzenduta egongo dira; esate baterako, 6 urtetik 18 urtera bitarteko haur eta gazteak, adineko pertsonak, mugikortasun arazoak dituztenak, etab. Multzo honetan sar daitezke, besteak beste, balio anitzeko pistak, skatekoak, irristaketakoak, osasun parkeak, eta abar.

— Kirol materiala edo ekipamendua hornitzea, lurralde mailako kirol hobekuntzako zentroetan edo eskualde mailako kirol espazioetan erabiltzeko.

— Kirol ekipamenduetan segurtasun baldintzak hobetzera, mugikortasun arazoak dituzten pertsonek kirol espazioak erabiltzeko egokitzera edo amankomunean kudeatzera zuzendutako jarduketak.

— Bereziki herri kiroletarako kirol instalazioak eraiki, egokitu edo zaharberritzea.

— Proyecto que estudie la mejora de la calidad de la oferta deportiva local a través de la adaptación de instalaciones deportivas a las demandas de las y los usuarios.

— Proyectos de construcción, reforma o de rehabilitación de instalaciones deportivas.

*4. Evaluación y cuantificación de la subvención.*

1. La cuantía de las subvenciones se determinará en función del ámbito del proyecto presentado y del importe de su presupuesto.

2. La cuantía de las subvenciones no superará los siguientes importes:

— 6.000 euros, cuando se trate de la señalización de recorridos o áreas adaptadas para la práctica físico-deportiva.

— 1.500 euros, en caso de áreas de práctica de surf.

— 6.000 euros, para la señalización de accesos a las instalaciones deportivas.

— 1.500 euros para la realización de proyectos que estudien la mejora de la calidad de la oferta deportiva local.

— 50.000 euros para los proyectos de construcción, reforma o rehabilitación de instalaciones deportivas.

— 5.000 euros para los proyectos que persiguen mejorar las condiciones de accesibilidad a las instalaciones deportivas.

— 50.000 euros para los centros de tecnificación de ámbito territorial.

3. En ningún caso, el importe de la ayuda será superior al 50% del coste de la intervención.

4. Para seleccionar las actuaciones que sean subvencionadas, se tomarán en consideración los siguientes criterios:

— Ámbito de influencia.

— Idoneidad del proyecto.

— N.º de personas usuarias potenciales.

— Soluciones constructivas.

5. En el caso de proyectos de construcción, reforma o rehabilitación de instalaciones deportivas, se otorgará prioridad a aquellas intervenciones referidas a:

— La construcción, remodelación y rehabilitación de equipamientos deportivos de carácter local de la «red básica», ubicados en municipios cuya población sea inferior a 5.000 habitantes, según los últimos datos facilitados por el EUSTAT, Instituto Vasco de Estadística.

— Equipamientos deportivos «urbanos», a ubicar en zonas con grandes núcleos de población (en parques, plazas, áreas anexas a instalaciones deportivas,). Estas actuaciones estarán dirigidas, preferentemente, a fomentar la práctica físico-deportiva de sectores concretos de la población, por ejemplo, jóvenes de 6 a 18 años, personas de la tercera edad, personas con movilidad reducida, etc. El tipo de espacios de práctica que se podrán contemplar en esta línea de actuación, son, por ejemplo: Las pistas multiusos, las pistas de skate, las pistas de patinaje, los parques de salud, etc.

— Dotación de material o equipamiento deportivo para su uso en centros de perfeccionamiento deportivo de carácter territorial o espacios deportivos de ámbito comarcal.

— Actuaciones en equipamientos deportivos que estén orientadas a mejorar las condiciones de seguridad, la adecuación de los espacios deportivos para su posible uso por personas de movilidad reducida o a promover su gestión mancomunada.

— Construcción, remodelación o rehabilitación de instalaciones de modalidades deportivas autóctonas, específicas para los juegos y deportes vascos (Herri Kirolak).

5. *Diru laguntza ordaintzea.*

Gastuen ziurtagiriak edo ordainagiriak aurkeztean egingo da ordainketa; zurigarriak obrak amaitu ondoren eta, beti ere, laguntzen deialdiko urtearen azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

10 ERANSKINA
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARLOKO IKERKETA PROIEKTUAK

1. *Xedea.*

Oinarri hauen xedea arautzea da diru laguntzak ematea, elkarrekiko lehian, ikerketarako azpiegitura sustatzeko jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruko ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuen bitartez.

2. *Entitate onuradunak.*

Laguntza hauen onuradun izan daitezke 2002ko urriaren 1eko 221/02 Dekretuak arautako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartuta dauden zentroak (urriaren 7ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 190. zk), eta eskola, talde nahiz sail unibertsitarioak, baita beren xedea ikerketa duten irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuk ere.

Gipuzkoako enpresek ere jaso ahal izango dituzte laguntza hauek, baldin, Gipuzkoako Foru Aldundi barneko Ikerketa+Garapena+Berrikuntzako (I+G+B) Kudeaketa Koordinatuko Planean ezarritakoaren ildoan Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuari jarduera fisikoaren eta kirolaren alorreko I+G proiektuak aurkeztu badizkiote.

3. *Eskaerak aurkeztea.*

Eskaera orriarekin batera, egitasmoaren laburpen bat aurkeztu behar da, dokumentazio hau izango duena:

— Lanaren azalpen xehea, helburuak eta faseak zehaztuta.

— Lanetan parte hartuko duten pertsonen aurkezpena, curriculumarekin.

— Aurrekontua, faseka eta kontzeptuka zehaztuta.

— Beste instituzio batzuetan lortutako edo eskatutako finantzaketak.

— Lanak egiteko fasez fasekako plangintza, fase bakoitza noiz hasi eta noiz bukatzea aurreikusten den zehaztuta.

— Gipuzkoako ekonomian eta gizartean izan lezakeen eragina.

4. *Eskaerak aztertzea eta laguntzen zenbatekoa finkatzea.*

1. Eskaeren azterketa, ebaluazioa eta hautaketa proiektu motaren arabera egingo da, ondorengo irizpideei jarraituz:

— Proiektuaren kalitatea, 15 puntu gehienez.

— Proiektuaren eragina gorputz jardueraren edo kirolaren eremuko jakintza hobetzean, 30 puntu gehienez.

— Egitasmoa interesgarria izatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren kirol gaietako jarduketa lerroetarako, 30 puntu gehienez.

— Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, 10 puntu gehienez.

— Esperientzia izatea jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko ikerketan, 15 puntu gehienez.

2. Aurreko irizpideak erabili eta gero, 35 puntu edo gehiago lortzen dituzten proiektuak izango dira diruz lagunduak.

5. *Abono de la subvención.*

La subvención se abonará a la presentación de las certificaciones o justificantes del gasto realizado, una vez finalizadas las obras y, en cualquier caso, antes del 30 de noviembre del año de convocatoria de las ayudas.

ANEXO 10
PROYECTOS DE INVESTIGACION EN MATERIA DE ACTIVIDAD FISICA Y DEPORTIVA

1. *Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento de ayudas económicas, en régimen de concurrencia competitiva, para proyectos de investigación, desarrollo e innovación en el ámbito de la actividad física y el deporte, fomentando así la infraestructura de investigación.

2. *Entidades beneficiarias.*

Podrán acceder a estas ayudas los centros incluidos en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación regulada por el Decreto 221/2002, de 1 de octubre (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 190, de 7 de octubre), las escuelas, grupos y departamentos universitarios y otras entidades sin ánimo de lucro cuyo objeto social sea la investigación.

Asimismo, podrán ser beneficiarias de estas ayudas aquellas entidades guipuzcoanas que hayan presentado proyectos de I+D+i en materia de actividad física y deporte al Departamento de Deportes y Acción Exterior, de acuerdo a lo establecido en el Plan de Gestión coordinada de la I+D+i interna de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. *Presentación de instancias.*

Las instancias de solicitud irán acompañadas de un resumen del proyecto que contendrá la siguiente información:

— Descripción detallada del trabajo, objetivos y sus fases.

— Presentación de las personas que intervendrán en los trabajos y currículum de las mismas.

— Presupuesto desglosado por fases y conceptos.

— Financiaciones obtenidas o solicitadas a otras instituciones.

— Planning por fases de la realización de los trabajos con determinación de las fechas previsibles de comienzo y final de los mismos.

— Impacto previsible sobre la economía y sociedad guipuzcoana.

4. *Evaluación y cuantificación de las subvenciones.*

1. El análisis, evaluación y selección de las solicitudes se realizará en función del tipo de proyecto, de conformidad con los siguientes criterios y ponderación:

— Calidad del proyecto, hasta 15 puntos.

— Incidencia del proyecto en la mejora del conocimiento en materia de actividad física o deportiva, hasta 30 puntos.

— Interés del proyecto para líneas de actuación en materia de deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, hasta 30 puntos.

— Utilización de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, hasta 10 puntos.

— Experiencia en la investigación en el ámbito de la actividad física y el deporte, hasta 15 puntos.

2. Los proyectos subvencionados serán los que, una vez aplicados los anteriores criterios, obtengan una puntuación igual o superior a 35 puntos.

3. Gutxienez eskatutako puntuak lortzen ez dituzten proiektuak baztertu ondoren, puntuaren balioa aterako da, zatiketa hau eginda: Diru laguntza lerro honetarako izendatutako gastua zati ezarritako betebeharrak betetzen dituzten eskaera guztiek lortutako puntuen batuketa osoa. Hortik ateratzen den kopurua izango da puntuaren balioa, eta balio hori eta proiektu bakoitzari dagokion puntu kopurua biderkatuta aterako da proiektu bakoitzari dagokion diru laguntza. Diru laguntza hori ezin izango da inoiz proiektu bakoitzerako onartutako aurrekontuaren %50a baino handiagoa izan.

4. Lehentasuna izango dute ondorengo proiektuek:

— Unibertsitate esparruan ofizialki aitortutako ikerketa taldeek aurkeztutakoek, bai eta talde horiekin elkarlanean egindakoek ere.

— Gorputz jarduera eta kirol gaietako oinarrizko ikerketa proiektuek.

— Gipuzkoako kirol sistema etengabe neurtu, baloratu eta diagnostikatuko duen sistema bat sendotu eta hobetzera bideratutakoek.

— Jarduera fisiko eta kirol arloetako teknologia eta ikerkuntza proiektuen eta eragileen arteko koordinazioa sustatzen duten eta Gipuzkoan kokatuta dauden I+G+B sareak eta elkarteak sortzea eta garatzea bultzatzen dutenek.

— Gipuzkoako Foru Aldundiaren kirol gaietako jarduera ildoak sustatzeko interesgarriak direnek.

— Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak kirol ikerketaren alorrean izenpetutako lankidetza hitzarmenaren barruan aurkeztutako proiektuek.

— Aurreko urteetan finantzatu eta faseka gauzatzen ari diren proiektuek.

— Jarduera fisikoaren eta kirolaren, eta osasunaren eta bizi kalitatearen artean dagoen erlazioa ikertzen duten eta berrikuntzak ekartzen dituzten proiektuek.

5. Kirol Zuzendaritza Nagusiaren arabera interes berezikoak diren eta aurreko ataleko baldintzetakoren bat betetzen duten proiektuen kasuan, proiektu bakoitzerako onartutako aurrekontuaren arabera kalkulatuko da diru laguntzaren zenbatekoa, nahiz eta foru ekarpena inoiz ez den aurrekontuaren %75 baino handiagoa izango. Kasu horietan, lankidetza hitzarmen bat sinatu ahalko da diru laguntzaren onuradunarekin eta bertan zehaztuko dira, batetik, laguntzaren zenbatekoa eta, bestetik, onuradunari dagozkion gainerako betebeharrak.

*5. Diru laguntza ordaintzea.*

Arau orokor gisa, diru laguntzaren %70 eskaera onartzean ordainduko da. Gainerakoa lanak amaitu ostean ordainduko da. Lanak amaitu diren zuritzeko, deskargu teknikoa eta ekonomikoa aurkeztu beharko da, beti ere laguntza deialdiaren urteko azaroaren 30a baino lehen.

*6. Entitate onuradunen betebeharrak.*

1. Onuradunak behartuta daude diruz lagundutako programari dagokion edozein gorabehera edo aldaketaren berri ematera. Aldaketa egiteko, aldez aurretik, Kirol Zuzendaritza Nagusiaren baimena beharko da.

2. Halaber, Kirol Zuzendaritza Nagusiaren eskura jari behar dute, hark eskatzen badie, gastuen zenbateko osoari dagokion jatorrizko dokumentazio zurigarria.

3. Una vez descartados los proyectos que no obtengan la puntuación mínima exigida, se obtendrá el valor unitario del punto dividiendo el gasto asignado a esta línea de subvenciones entre la suma total de puntos obtenidos por el conjunto de solicitudes que cumplan con los requisitos establecidos. La cantidad resultante se multiplicará por el número de puntos de cada proyecto para obtener la subvención correspondiente. Esta subvención no podrá ser superior al 50% del presupuesto aceptado para cada proyecto.

4. Se otorgará preferencia a los siguientes proyectos:

— Los presentados por grupos de investigación oficialmente reconocidos en el ámbito universitario, así como aquellos presentados en colaboración con dichos grupos.

— Los relativos a investigación básica en el área de la actividad física y el deporte.

— Los orientados a consolidar y mejorar un sistema de medición, valoración y diagnóstico permanente del sistema deportivo guipuzcoano.

— Los que impulsen la creación y desarrollo de redes y asociaciones de I+D+i radicadas en Gipuzkoa que promuevan la coordinación entre proyectos y agentes tecnológicos e investigadores en materia de actividad física y deporte.

— Los que resulten de especial interés para el fomento de las líneas de actuación en materia de deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Los proyectos presentados dentro del convenio de colaboración firmado entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea en materia de investigación deportiva.

— Los proyectos financiados en años anteriores y cuya ejecución se realice por fases.

— Los proyectos que investiguen y aporten innovación en la relación entre la actividad físico-deportiva, la salud y la calidad de vida.

5. En el caso de proyectos considerados de especial interés por parte de la Dirección General de Deportes, que cumplan alguno de los requisitos señalados en el apartado anterior, el importe de la subvención se calculará en función del presupuesto aceptado para cada proyecto, sin que la aportación foral pueda superar el 75% del mismo. En estos supuestos, se podrá suscribir un convenio de colaboración con la entidad beneficiaria de la subvención, convenio en el que se determinará la cuantía de la misma, así como las restantes obligaciones que incumben a la entidad beneficiaria.

*5. Abono de la subvención.*

Con carácter general, el 70% de la subvención se abonará en el momento de la concesión. El pago del importe restante se efectuará a partir de la conclusión de los trabajos, que se justificará mediante descargo técnico y económico de los mismos que se deberá de presentar, en cualquier caso, antes del 30 de noviembre del año de convocatoria de las ayudas.

*6. Obligaciones de las entidades beneficiarias.*

1. Comunicar cualquier eventualidad o modificación del programa subvencionado, que habrá de contar con la autorización expresa previa de la Dirección General de Deportes.

2. Poner a disposición de la Dirección General de Deportes, cuando ésta la requiera, la documentación original y justificativa del importe total de gastos.

11 ERANSKINA

KIROLEAN BERDINTASUNAREN ALDE EGITEN DUTEN PROIEKTUAK ETA PROGRAMAK

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea diru laguntzak ematea, elkarrekiko lehian, kirolaren esparruan berdintasuna sustatzen duten proiektuak eta programak bultzatzeko.

*2. Entitate onuradunak.*

Diru laguntza hauek jaso ahal izango dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza Nagusiak onartutako berdintasuneko programak edo ekimenak dituzten Gipuzkoako kirol erakundeek.

*3. Eskaerak aurkeztea.*

Eskaera orriarekin batera, aurerra eraman nahi den egitasmoa edo programa aurkeztu behar da, diagnostikoa, helburuak, sarrera eta gastuen aurrekontua, jarraipena eta adierazleak dituena.

*4. Eskaerak aztertzea eta laguntzen zenbatekoa finkatzea.*

1. Eskaeren azterketa, ebaluazioa eta hautaketa proiektu eta jarduera motaren arabera egingo da honako irizpide hauek kontuan izanik:

— Zer-nolako eragina izango duen proiektuak kirolean berdintasuna sustatzen.

— Proiektua interesgarria izatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren kirol gaietako jarduketa lerroetarako.

— Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.

— Proposatutako helburuak eta proiektuaren kostuak.

2. Ondorengo baremoa erabilita 35 puntu edo gehiago lortzen dituzten proiektuei emango zaizkie diru laguntzak:

— Proiektuaren ezaugarriak: 25 puntu gehienez.

— Helburuen egokitasuna: 50 puntu gehienez.

— Aurrekontuen zenbatekoa: 25 puntu gehienez.

3. Gutxienez eskatutako puntuak lortzen ez dituzten proiektuak baztertu ondoren, puntuaren balioa aterako da, zatiketa hau eginda: Diru laguntza lerro honetarako izendatutako gastua zati ezarritako betebeharrak betetzen dituzten eskaera guztiek lortutako puntuen batuketa osoa. Hortik ateratzen den kopurua izango da puntuaren balioa, eta balio hori eta proiektu bakoitzari dagokion puntu kopurua biderkatuta aterako da proiektu bakoitzari dagokion diru laguntza. Diru laguntza hori ezingo da inoiz proiektu bakoitzerako onartutako aurrekontuaren %50a baino handiagoa izan.

4. Lehentasuna izango dute honako proiektu hauek:

— Kirol antolakuntzaren egituran aldaketak sortzera eta kirol arloan emakumeen parte hartzea erraztera bideratutako proiektuak edo ekintzak.

— Proiektu espezifikoak edo ekintza positibo zehatzak, emakumeen parte hartzea kirol erakundeen zuzendaritzan eta kudeaketan, lan teknikoetan, irakaskuntzan, epaile lanetan eta abarretan bultzatzera edo kirol arloan emakumeen diskriminazio egoerak ezabatzera bideratutakoak.

— Emakumeek kirol arloan bizi duten egoera ezagutzera bideratutako ikerketa proiektuak.

— Aurreko urteetan finantzatu eta faseka gauzatzen ari diren proiektuek.

ANEXO 11

PROYECTOS Y PROGRAMAS QUE FOMENTEN LA IGUALDAD EN EL DEPORTE

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento, en régimen de concurrencia competitiva, de ayudas económicas destinadas a la promoción de proyectos y programas que fomenten la igualdad en el deporte guipuzcoano.

*2. Entidades beneficiarias.*

Podrán optar a estas ayudas económicas las entidades deportivas guipuzcoanas cuyos programas o iniciativas de igualdad hayan sido aprobados por la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*3. Presentación de instancias.*

Las instancias de solicitud deberán acompañarse del proyecto o programa a realizar, en el que se incluirán diagnóstico, objetivos, presupuesto de ingresos y gastos, seguimiento e indicadores del mismo.

*4. Evaluación y cuantificación de las subvenciones.*

1. El análisis, evaluación y selección de las solicitudes se realizará en función del tipo de proyecto y de actividades, de conformidad con los siguientes criterios:

— Incidencia del proyecto en el fomento de la igualdad en el deporte.

— Interés del proyecto para las líneas de actuación en materia de deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Utilización de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

— Objetivos propuestos y costes del proyecto.

2. Los proyectos subvencionados serán los que, una vez aplicado el siguiente baremo, obtengan una puntuación igual o superior a 35 puntos:

— Adecuación del proyecto: Hasta 25 puntos.

— Idoneidad de los objetivos: Hasta 50 puntos.

— Importe presupuestario: Hasta 25 puntos.

3. Una vez descartados los proyectos que no obtengan la puntuación mínima exigida, se obtendrá el valor unitario del punto dividiendo el gasto asignado a esta línea de subvenciones entre la suma total de puntos obtenidos por el conjunto de solicitudes que cumplan con los requisitos establecidos. La cantidad resultante se multiplicará por el número de puntos de cada proyecto para obtener la subvención correspondiente. Esta subvención no podrá ser superior al 50% del presupuesto aceptado para cada proyecto.

4. Se otorgará preferencia a los siguientes proyectos:

— Los proyectos o acciones orientadas a producir cambios estructurales en la organización deportiva y que favorezcan la participación de las mujeres en el ámbito deportivo.

— Los proyectos específicos o acciones positivas concretas orientadas a impulsar la participación de las mujeres en la dirección y en la gestión de las entidades deportivas, en las labores técnicas, docentes, arbitrales o a eliminar las situaciones de discriminación de las mujeres en el ámbito deportivo.

— Proyectos de investigación orientados a generar conocimiento sobre la situación de las mujeres en el ámbito deportivo.

— Los proyectos financiados en años anteriores y cuya ejecución se realice por fases.

5. Kirol Zuzendaritza Nagusiaren arabera interes berezikoak diren eta aurreko ataleko baldintzetakoren bat betetzen duten proiektuen kasuan, proiektu bakoitzerako onartutako aurrekontuaren arabera kalkulatuko da diru laguntzaren zenbatekoa, nahiz eta foru ekarpena inoiz ez den aurrekontuaren % 75 baino handiagoa izango. Kasu horietan, lankidetza hitzarmen bat sinatu ahalko da diru laguntzaren entitate onuradunarekin eta bertan zehaztuko dira, batetik, laguntzaren zenbatekoa eta, bestetik, onuradunari dagozkion gainerako betebeharrak.

*5. Diru laguntza ordaintzea.*

Honela ordainduko da onartutako laguntza:

— %80, aurrerakin gisa, diru laguntza onartzen denean.

— Gainerako %20a, diru laguntzen deialdiaren urteko azaroaren 30a baino lehen 13. oinarri orokorrak ezarritako edukia duen kontu zurigarria aurkeztu eta gero.

5. En el caso de proyectos considerados de especial interés por parte de la Dirección General de Deportes, que cumplan alguno de los requisitos señalados en el apartado anterior, el importe de la subvención se calculará en función del presupuesto aceptado para cada proyecto, sin que la aportación foral pueda superar el 75% del mismo. En estos supuestos, se podrá suscribir un convenio de colaboración con la entidad beneficiaria de la subvención, convenio en el que se determinará la cuantía de la misma, así como las restantes obligaciones que incumben a la entidad beneficiaria.

*5. Abono de la subvención.*

La subvención concedida se abonará del modo siguiente:

— El 80%, en el momento de la concesión en concepto de anticipo.

— El 20% restante, a la presentación, antes del 30 de noviembre del año de la convocatoria de las subvenciones, de la cuenta justificativa, con el contenido determinado en la base general 13.ª